



*txanela*

**Irakaslearen gidaliburua**  
(zirriborroa)

**2**

**Gu ere zerbait bagara eta**

(Txanela - Material globalizatua,  
Lehen Hezkuntza - 6. maila)

## TXANELA 6: BIGARREN UNITATE DIDAKTIKOAREN GIDAREN ZIRRIBORROA

### “GU ERE ZERBAIT BAGARA ETA...”

**Unitatearen gaia eta haria:** Europako kontinentea ezagutuko dugu, alderdi eta ikuspegi askotarikoetatik aztertuz: geografikoki, lurraldearen banaketa politikoari erreparatuz, herrien ikuspegitik, hirien eta kultur adierazpen anitzen ikuspegitik eta baita alderdi turistikotik begiratuta ere.

**Proiektua:** Europari buruzko hainbat gauza ikasi eta informazio-iturrien erabileraz ikasiko dugunaz baliatuz, azalpen-testua idatzi, aurkezpen sortzailea prestatu, eta, Europan zehar egiteko prestatutako bidaiak aurkeztuko dugu.

**Urte osorako proiektuak:** Lehenengo gidan proposatzen genituen txokoekin jarraitu, edota egoki ikusiz gero, besteren bat martxan jar dezakezue.

**Oharra:** Unitate honetako proiektua burutzeko, ikasleek informazio-iturrietara jo beharko dute, informazioa irakurri, ulertu, aukeratu, egokitu eta erabiltzeko; hori dela eta, hainbat eta hainbat jarduera talde handian eta era esplizituan burutuko ditugu, ikasleak informazioaren trataerari dagokion prozesu horretan eman beharreko urratsak eta aplikatu beharreko estrategiak pixkanaka barneratuz joan daitezten.

Bestetik, liburuko orrialdeetan zehar hainbat bonbilla aurkituko dituzue, liburuan bertan nahiz lan-koadernoko jardueren bitartez, ikasitakoa eta egindakoa bete-betean proiekturako bidera dezazuen.

### ZEHAR LERROAK, TREBETASUN SOZIALAK

Giza eskubideak, harremanak, bake hezkuntza	Norberaren eta beste kultura eta ohiturekiko begirunea eta errespetua. Parte-hartze eta erabaki-hartze demokratikoa.
Ingurumenaren kontserbaziorako hezkuntza	Gure ingurua (mendia, ibaia...) errespetatu eta zaindu.

## EUSKAL DIMENTSIONA

Hizkuntza eta literatura	- “Musubero mon amour”, Anjel Lertxundi - “Komunikazio arazo bat”, Mitxel Murua - Bertsoak. “SMSei jarriak”, Xavier Paya - “Teleferikoan”, Pello Esnal - Txorakikeriak: “Nola esaten da grekeraz...?” Kike Amonarriz/Xavier Telleria
Musika eta gorputz motrizitatea	Unitateko abestiak: “Europa”, Joxean Ormazabal eta Imanol Urbietak “Oi ama Euskal Herri goxoa”, Benito Lertxundi “Tirauki”, Oskorri “Kattalin”, Oskorriren bertsioa
Ingurumena	Herrien Europa: estaturik gabeko herriak Euskal Herriko klima motak Euskal Herria; Espainia eta Frantzia: - Antolaketa politiko eta administratiboa

## UNITATEEN EGITURA

### • **Hasierako jarduerak:**

- Azalari behatzea
- Komikia
- Aurre-ezagutzak
- Proiektuaren aurkezpena
- Ikasnorabidea

### • **Garapeneko jarduerak:** Gaia atalka lantzeko jarduerak

- Gaia landu ahala beste batzuen artean unitate guztietan aurkituko dituzuen konstanteak:
  - Ingeleseko orria.
  - Lagun artean.
  - Ipuina irakurri aurretik eta irakurri ondoren.
  - Liburu artean.
  - Hiztunak eta hizkuntzak
  - Artelana
  - Buelako komikia
  - Hitz errota
  - Kanta-kantari

- **Sintesia:** Ikasitakoa eta egindakoa berrikusteaz gainera, ebaluatzeko eredu gisako jarduerak ere aurkituko dituzue.

## Sekuentzia tematikoa:

### ZER DA EUROPA?

- Kokapena.
  - Kontinenteen hedadura.
- Muga geografikoak.
  - Penintsulak, irlak.
- Estatuak eta hiriburuak.
- Herrien Europa.
- Europa turistikoa.
- Talde-lana: bakar-lana eta elkarlana.
  - Parte-hartze eta erabaki-hartze demokratikoa.

### EUROPAKO GEOGRAFIA FISIKOA

- Kontzeptua: geografia fisikoa, erliebea.
- Erriebeko elementuak.
- Koordinatu geografikoak.
- Europako erliebea eta hidrografia: ezaugarri nagusiak.
- Europako klima eta paisaia.
  - Fenomeno atmosferikoak.
  - Klimogramak.
  - Klima motak.
- Euskal Herriko klima motak.

### EUROPAKO GEOGRAFIA POLITIKOA

- Europako mapa politiko desberdinak.
- Herriak eta estatuak.
- Euskal Herria; Espainia eta Frantzia:
  - Antolaketa politiko eta administratiboa.
- Elementu geografiko nagusiak.
- Europako Batasuna:
  - Sorrera.
  - Erakundeak.
  - Moneta: euroa.

### EUROPAKO GIZA GEOGRAFIA

#### Populazioaren banaketa

- Populazioaren hazkunde orokorra:
  - Berezko hazkundera eta hazkunde migratorioa.
- Kultur aniztasuna: ohiturak, folklorea...
- Europako museoak.

# IKT jarduerak

Duela zenbait urte hasita, Ikastolen Elkarteak hezkuntza eremuko I+G+B egitasmoak eta proiektuak garatzen ari da. IKT (Informazio eta Komunikazio Teknologia) alorrean hainbat urtetako eskarmentua metatua du, euskarazko eta euskal kulturaren ardaztutako software kurrikularra eta aisialdikoa ekoiztean aitzindaria izanez. Horren lekuko dira, besteak beste:

- **IKASYS** Ikastolen Elkarteak garatutako hezkuntza alorreko proiektu berritzailea. IKASYS proiektuak konpetentzien garapenerako beharrezkoak diren baliabideen sistematizazioa du helburu nagusia; horretarako, trebakuntzan, memorizazioan eta ulermenaren garapenean oinarritutako tipologia askotariko jardura sorta handia eskaintzen du.
- **Txanela webgunea** ([www.txanela.net](http://www.txanela.net)). Lehen Hezkuntzarako IKT konpetentziak hainbat konstanteren inguruan lantzeko eta garatzeko bidea aurkituko da Txanela webgunean. Lehen Hezkuntzako irakasleei zuzendurik, arloz arloko eta mailaz mailako jarduerak aurkezten dira. Oraingoz, “Txanela Globalizatua” deritzan arlo multzoan (Euskara- Ingurunea-Plastika) txertatu dira IKT jarduerak.
- **Ostadar webgunea** ([www.ostadar.net](http://www.ostadar.net)). Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako irakasleei eta ikasleei zuzendurik, arloz arloko eta mailaz mailako jarduerak aurkezten dira han. Irakasleari, gida didaktikoa jardueraz jardura zehaztuta eskaintzeaz gain, IKT jarduerak egiteko eta gidatzeko zehaztapen guztiak ematen zaizkio. Ikasleari, IKT jarduerak proposatzeaz gain, haiek egiteko behar dituen baliabideak ematen zaizkio. Oraingoz, Ostadar proiektuko hiru arloetan txertatu dira IKT jarduerak: Naturaren Zientziak, Gizarte Zientziak eta Euskara eta Literatura.

\* \* \* \* \*

## Virtusbooks plataforma

IKASELKAR argitaletxeak (Ikastolen Elkarteak eta Elkar argitaletxeak sortua) 2011-2012 ikasturtetik aurrera beste aukera bat eskainiko du. Beste baliabide bat eskaintzen da teknologia berrien eta IKT jardueren arloan. **Virtusbooks** (<http://www.virtusbooks.com/>) plataformaren bidez zoom-liburua eskaintzen zaie irakasleei eta ikasleei, ohiko ikasliburuen osagarri. Zoom-liburu horretan hainbat baliabide txertatu dira: bideoak, audioak, fitxategiak, estekak... Txanela webgunean eta Ostadar webgunean dauden hainbat IKT-jardura ere gehitu zaizkio. Horrela, irakasleak gune berean izango ditu Txanela proiektuak (Ostadar proiektuak) dituen baliabide guztiak, hainbat proiektagailu, erreproduzitzaile, etab. erabili beharrik gabe.

Hurrengo orrialdean agertzen den taularen bidez irakasleak jakingo du zein jardueratan izango duen baliabide digitaletara jotzeko aukera. Bestalde, irakasleak berak ere erantsi ahal izango ditu baliabideak, gero ikasleek arbel digitaletan edo bakoitzaren ordenagailuan ikus ditzaten.

## TXANELA 6

IKASLEAREN LIBURUA - 2. UNITATE DIDAKTIKOA

### BALIABIDEAK

Liburu digitalaren eta gidaliburuaren arteko lotura

GIDALIBURUKO JARDUERA	BALIABIDE MOTA	EDUKIA	TXANELAKO ORRIALDEA	LIBURU DIGITALEKO ORRIALDEA
0		Baliabideen taula	3	61
4		Europar zehar	6	64
8		Europa munduan	10	68
9		Estatuak eta hiriburuak	12	70
10		Europa	14	72
12		Europako argazkiak	16	74
17		Europa fisikoa: erliebe-elementuak	20	78
18		Koordenatu geografikoak	22	80
19		Informazio bila	23	81
20		Europako erliebea	24	82
22		Ibaiek eta aintzirak	26	84
23		Danubio urdina	27	85
23		Entzunaldia: Johann Strauss ( <i>Danubio urdina</i> )	27	85
24		Klima eta klimogramak	28	86

28		Mapa historikoak	35	93
29		Espainia eta Frantzia	36	94
30		Europar Batasuna	38	96
31		Europako txanponak	40	98
37		Katalin	49	107
39		Europako Hizkuntzak	50	108
40		Kultura: festak, folklorea, gastronomia, bisitatzeak...	52	110
42		Europako museoak	56	114
41		Chalaneiro	55	113
41		Oi ama Euskal Herria	55	113
41		Tiruki	55	113
43		Proiektua gauzatzen: gidoia	60	118
43		Proiektua gauzatzen: aurkezpena	60	118

## JARDUEREN ANALISIA

### 1. Azalari behatzea eta elkarrizketa

*Lan egiteko era: Talde handian*

*Materiala: Unitate didaktikoaren azala*

Beti bezala, unitatearen azalari behatuz hasiko gara lanean, aurre-ezagutzen estrategiak landu eta haurrak motibatzen asmoz. Elkarrizketa bideratzeko, Tough-en hizkuntza-funtzioetan oinarrituko gara, elementuak izendatuz, euren artean erlazionatuz, esandakoa arrazoituz eta iragartzeari bidea emanez.

- *Zer adierazi nahi du “Gu ere zerbait bagara eta...” izenburuak? Zer erlazio du aurretik landutako unitateekin? Ekar ezazue gogora “Izarren hautsa” abestia.*
- *Izenda itzazu irudian agertzen diren elementuak. Ezagunak al dituzu? Zerikusirik ba al dute batak bestearekin.*
- *Zer erlazio dago irudien eta izenburuaren artean?*
- *Zeri buruzkoa izango dela uste duzu unitate hau? Irudiari behatuz, zer alderdi jorratuko duzuela uste duzu? Justifikatu zure erantzuna.*

Elkarrizketa bukatzean, ikasleek euren izena idatziko dute unitatearen hirugarren orrialdean.

### 2. Komikia: “Gorabeherak kuadrillan”

*Lan egiteko era: Bakarka/Talde handian*

*Materiala: Ikaslearen liburua, 4. eta 5. or.*

Tarte bat emango diegu ikasleei komikia bakarka irakurtzeko. Adieraz iezaiezue, beti bezala, komikian hitza bezain adierazgarria izan daitekeela irudian bertan ager daitekeen edozein xehetasun; beraz, eman iezaiezue behar beste denbora hori sakonki beha dezaten.

Ondoren, ikasleei emango diegu hitza euren arreta bereziki bereganatu dutenaz hitz egiteko. *Zerk harritu zaituzte gehien eta zergatik? Zer iritzi duzu horri buruz?*

Ikasleak hitz egitera ez badira gehiegi animatzen, hauek izan daitezke elkarrizketa bideratzeko aukerako galdera eta gaiak:

- *Adieraz ezazu zer den komikian gertatzen dena.*
- *Zer iritzi duzu jarrera hauei buruz:*
  - Aitorrek Maddi “kamelatzeko” erabiltzen duen “Astunaren teknika”.*
  - Aitorrek argazkiak ezabatzeari buruz duena? Nahita, nahi gabe, errudun, errugabe...*
  - Maddiren jokabideaz, gertatukoa gertatu ondoren.*
  - Manexen eta Jonen jokabideaz Aitorrek bere bertsioa kontatu ostean.*
  - Intzak eta Ibrahimek erabiltzen duten estrategia-arazoari konponbidea eman nahian...*



*Azken binetari begiratu eta erreparatu kuadrillakoen jarrera, korruan kokatzeko moduari buruzkoa... Zerbaitek arreta berezia ematen al dizu? Zerk eta zergatik?*

*Zer tokitan izan da Maddi oporretan? Gogoratzen al duzu aurreko unitatearen azken bineta? Ba al du erlaziorik honekin?*

*Komikiko gaiak kontuan izanik, zein izan daitekeela uste duzu unitate honetan landuko duzun gaia eta egin beharko duzun proiektua?*

Ez ahaztu, ikasleen beharrianak kontuan izanik, egokienak diren Tough-en hizkuntza-funtzioak martxan ipintzeko aukera duzuela.

### **3. Komikia dramatizatzen**

*Lan egiteko era: Talde txikian*

Nahi izanez gero, komikiaren irakurketa dramatikoa bukatzean, edo haren alternatiba modura, komikia dramatiza dezakezue. Ikasleek, komikiko egoera antzeztuko dute, baina euren hitzak erabilia, eta tarteka inprobisazio txikiak eginda.

### **4. Aurre-ezagutzak**

*Lan egiteko era: Talde txikian/Talde handian*

*Materiala: Ikaslearen liburua, 6. or.*

Ikasleak, talde txikietan antolatuta, Europa eta europarrei buruz dituzten aurre-ezagutzak ipiniko dituzte martxan, gero, hitzak nahiz irudiak erabiliz, horma-irudi (kontzeptu-mapa) bat osatzeko. Talde handian elkarri azalduko diogu egindakoa, sortzen diren ideia berriak ere jasoz.

Bestetik, bidaien gaia ere aipatzen da orrialde honetan; hitz egin ezazue Europatik zehar egin dituzten bidaietz, edo egin daitezkeenez, gerta baitaiteke euretako baten batek inoiz bidaiatu ez izana Europan zehar.

Bukatzeko, ordenagailuak bidaiaria aurkezteko ematen dizkigun baliabideez hitz egiteko elkarrizketa eragingo dugu.

### **5. Proiektua**

*Lan egiteko era: Talde handian*

*Materiala: Ikaslearen liburua, 7. or./CD-ROMa (“Europa-Museoen bidaiaria.ppt” artxiboa)*

Europan zehar egin daitekeen bidaiaria bat imajinatu, antolatu eta norbaiti aurkeztea da unitate honetako proiektua. Bidaiaria aitzakiatzat hartuta, Europari buruz hainbat eta hainbat gauza ikasteko aukera izango duzue. Aurkezpena egiteko, baliabide berri bat erabiltzea proposatzen dizuegu, aurkezpen sortzailea. Komenigarria da orrialde honetan —“proiektuaren aurkezpena” (7. or.)— jartzen duenaz gainera, “proiektua gauzatu” orrialdeari ere (60. or.) begiratu bat ematea, proiektua nondik norakoa izango den eta nola egin dezakezuen jabe zaitezten. Han aurkituko duzuen informazio eta aholkuekin batera, lau aipamen hauek ere kontuan har itzazue:

- a) Lanari ekin aurretik, eredu gisa egin den “*Europa-Museoen bidaiia*” izeneko aurkezpena ikusi eta aztertu. Horretarako, CD-ROMean dagoen “*Europa-Museoen bidaiia.ppt*” artxiboa exekutatu behar duzue.
- b) Argazki-kamera bidez edo eskaner bidez lortzen ditugun irudietan tamainari erreparatu. Aurkezpenean txertatu aurretik, irudiaren erresoluzioa egokitzea (txikitzea) komeni da, aurkezpenean izango duen tamainara ahalik eta gehien egokitzea, alegia. Lan hori irudi-editore batez egiten da, “tamaina edo erresoluzioa aldatu” aukeraz baliatuta. Internetetik jaitsitako irudiek erresoluzioa egokitua izaten dute, gehienetan.
- c) Aurkezpenean txertatuko diren irudi-, audio- eta bideo-artxibo guztiak aurkezpen artxiboarekin batera gorde behar dira, karpeta berean.
- d) Aurkezpenaren kopiak egitean (beste ordenagailu batera, edo edozein kanpo-euskarrira), aipatu artxibo guztiak kopiatu behar dira: aurkezpena, irudiak, audioak eta bideoak.
- e) Proiektuaren gauzatze-prozesuan zehar sor daitezkeen zalantza edo arazo teknikoak argitu eta bideratzeko, IKT dinamizatzaileari laguntza eskatu.

Bestetik, zuen ikastetxean, ordenadore falta edo beste arrazoiren bategatik hura prestatzeko aukerarik ez baduzue, irudiak bil ditzakezue (aldizkarietatik jasota, argazkiak...), horma-irudiak prestatu eta ahozko aurkezpena prestatu eta gauzatu.

Prestatuko duzuen proiektuaren eredia izan daitekeena aurkezten dizuegu CD-ROMean; ikus ezazue, girotzen hasteaz gain, hainbat ideia hartzeko balekoa izango duzue eta.

## 6. Ikasnorabidea

*Lan egiteko era: Talde txikian/Talde handian*

*Materiala: Ikaslearen liburua, 8. eta 9. or.*

Ikasnorabidearen funtzioa eta helburua ikasleak ikasten ari direnaz jabetzea da, ikasketaren auto-erregulaziorako tresna da, beraz. Landuko dutena aldeztu aurretik ezagutuz, eta landu ostean, ikasitakoari zentzu berria emateko aukera izango dute. Beraz, joan-etorrian erabiliko dugun tresna izango da, garapeneko jardueretan murgildu aurretik, lehenik, eta atal berri bat lantzerako goazen bakoitzean, atala hasi aurretik, eta hura bukatzean ikasnorabidera joz.

Unitatean ingurune, hizkuntza eta arte hizkuntza arloak era globalizatu eta integratuan lantzen dira. Ikasnorabideak arlo bakoitzean nagusiki lantzen diren edukien berri ematen digu, atalez atal, atal bakoitzeko kolore ilunean. Atal horretako kolore argian, berriz, proiektua garatu bitarteko arlo ezberdinen edukien lanketa modu uztartuan adierazten da.

Unitate bakoitzeko gaiaren sekuentzia tematikoaz jabetzeko, ingurune atalaren goitik beherako irakurketa egitea aholkatzen dizuegu. Ondoren, atalez ataleko irakurketa horizontala egin.

Ikasleek bigarren zikloan antzeko hainbat ikasnorabide ikusi dituzte. Aurtengoak, ordea, aldaketa txiki bat du: bloke bakoitzaren lehen lerroan edukiak arloka banatuta ikusiko dituzte eta azpian horien arteko uztartaketaren inguruko informazioa.

Beti bezala, fotokopia itzazue koloreetan eta DIN-a 3 tamainan orrialde horiek, eta jar itzazue gelan, denen begi bistan.

## **7. Txoko zuria**

*Lan egiteko era: Talde handian*

Behin ikasleek argi dutenean zein den egingo duten proiektua eta baita proiektu hori burutzeko ikasiko dutena ere, txoko zuria hornitzen hasteko unea heldu da. Hau da, taldean hitz egin ezazue bakoitzak gaiarekin zerikusia duen zer elementu izan dezakeen etxean gelara ekartzeko. Materiala ekarri ahala, txokoan jarriko dugu. Komenigarria da ikasle bakoitzak berak ekarritako materiala talde handiari aurkeztea, gela guztiak txokoan dagoenaren berri izan dezan eta erabil dezan behar edo egoki ikusten duenean.

Litekeena da Europari buruzko hainbat material ekartzea ikasleak (argazkiak, tokian tokiko topikoak, liburuak, aldizkariak...); beraz, aurreikus ezazue horiek guztiak jartzeko espazio handia beharko duzuela.

## **8. Zer da Europa?**

*Lan egiteko era: Binaka/Talde txikian/Talde handian*

*Materiala: Ikaslearen liburua, 10. eta 11. or./11. lan-koaderno, 30. orrialdetik 32.era/CD-ROMa*

Lan-sekuentzia honek ikasleei parada emango die, Europari ikuspegi geografikotik erreparatzeko eta haren kokapenaz jabetzeko. Lan-koadernoko jarduerak bideratuta, liburuak nahiz gelako mapa fisikoak aztertu, eskatzen zaien informazioa bilatu eta egoki erabiltzeaz gainera, Europaren kokapenari buruzko testutxoa osatzeko aukera ere izango dute ikasleek. Testu hori euren proiekturako baliatuko dutenez, haren ahozko adierazpenean ere trebatzeko tartea har ezazue.

Binaka nahiz talde txikietan antola daitezke ikasleak lan hau burutzeko.

Jarduera honetan badira inguruneko hainbat kontzeptu (kontinente, ozeano eta itsaso nagusien izenak eta kokapena eta irla eta penintsularen definizioa), ikasleek lehendik ere ezagunak dituztenak, horiek erreparatzeko eta indartzeko, hainbat jarduera dituzue CD-ROMean.

## **9. Europa: Estatuak eta hiriburuak**

*Lan egiteko era: Binaka/Talde txikian/Talde handian*

*Materiala: Ikaslearen liburua, 12. eta 13. or./11. lan-koaderno, 33. orrialdetik 35.era/CD-ROMa*

Zer da Europa? galderari beste ikuspegi batetik erantzuteko asmoz, hau da, ikuspegi administratibo eta politikotik, hainbat estatuz osatutako kontinentea dela, alegia, talde txikietan antolatuta gelako mapa politikoak aztertu eta lan-koadernoko jarduera osatuko dute ikasleek.

Bukatzean, talde handian berrikusiko dugu, koadroa osatzeko erabili dituzten edo erabili zitzaizketen mapen behaketa estrategiak taldean konpartituz:

## EUROPA OSATZEN DUTEN ESTATUAK ETA HIRIBURUAK

### *Atlantikoko irlak (3)*

ESTATUA	Hiriburua
ISLANDIA	Reykjavik
ERRESUMA BATUA	Londres
IRLANDA	Dublin

### *Eskandinaviar penintsula (2)*

ESTATUA	Hiriburua
NORVEGIA	Oslo
SUEDIA	Stockholm

### *Estatu baltikoak (4)*

ESTATUA	Hiriburua
FINLANDIA	Helsinki
ESTONIA	Tallinn
LETONIA	Riga
LITUANIA	Vilnius

### *Ekialdeko estatuak (10)*

ESTATUA	Hiriburua
POLONIA	Varsovia
TXEKIAR ERREPUBLIKA	Praga
ESLOVAKIA	Bratislava
HUNGARIA	Budapest
ERRUMANIA	Bukarest
BULGARIA	Sofia
BIELORRUSIA	Minsk
UKRAINA	Kiev
MOLDAVIA	Chisinau
ERRUSIA	Mosku

### *Kaukasoko estatuak (3)*

ESTATUA	Hiriburua
GEORGIA	Tbilisi
ARMENIA	Erevan
AZERBAIJAN	Baku

### *Erdiko Europa (8)*

ESTATUA	Hiriburua
DANIMARKA	Kopenhage
ALEMANIA	Berlin
AUSTRIA	Viena
HERBEHEREAK (HOLANDA)	Amsterdam
BELGIKA	Brusela
LUXENBURGO	Luxenburgo
SUITZA	Berna
FRANTZIA	Paris

### *Adriatikoko estatuak (7)*

ESTATUA	Hiriburua
ESLOVENIA	Ljubljana
KROAZIA	Zagreb
BOSNIA-HERZEGOVINA	Sarajevo
MAZEDONIA	Skopje
SERBIA	Belgrado
MONTENEGRO	Podgorica
ALBANIA	Tirana

Sekuentzia honen azken jarduera gisa, ikasleek paper-tipula hartu eta Europako mapa kalkatuko dute, eta bertan estatu eta hiriburuen izenak idatziko dituzte. Ariketa honen helburua Europako estatuak eta hiriburuak eta horien kokapena buruz jakitea ez bada ere, jarduera honek, liburuan atzetik datozen beste hainbatek eta baita CD-ROMean dituztenak ere, ezagutza horretan lagundu egingo die ikasleei.

### **10. Kanta-kantari: Europa**

*Lan egiteko era: Talde txikian/Talde handian*

*Materiala: Ikaslearen liburua, 14. or./CDa, abestiak, 7. pista*

Hiru laguneko taldeetan antolatuta, tarte bat emango diegu ikasleei orrialde horretan agertzen den abestia eta jarduerak irakur ditzaten. Ondoren, talde handian, elkarrizketa sortuko dugu, galdera horien inguruan hitz egiteko.

Hona hemen orrialde horretan proposatutakoaren aukerako erantzunak:

**Begiratu mapari:** 1. Mapa fisikoa. 2. Mapa politikoa.

**...ikusita eta ikasi:** 1. Kontinenteen muga geografikoak, estatuen izenak eta hiriburuenak...  
2. Hauek dira, besteak beste, orain arte Txanelan ikasitako hainbat abesti eta abesti horrekin lantzen zen edukia:

- *Ostirala iritsi da (lanegunak eta asteburuak).*
- *Alfabetoa (alfabetoa).*
- *Mila kilo zorion (zenbakiak ikasteko, abestiak dio: baietz asmatu zenbat dituzun betetzen!? Zergatik ez ditugu txaloka zenbatzen?*
- *Ibiliz, ibil, ibilian (Espazioan kokatzen: ezkerrean, eskuinera, barrura...).*
- *Zazpi Euskal Herriak (probintziak eta estatuak).*
- *Hilabeteak (urteko hilabeen izenak).*
- *Laster oporrak (lana eta oporraldia).*
- *Unibertsolariak (Bokalak, a, e, i, o, u; zenbakiak, 1, 2, 3, 4, 5, 6...).*
- *Trikitixa (Espazioan kokatzen: eskuak aurrera, atzera, burua gora, hankak okertu, mingaina kanpora-barrura...).*
- *Alferraren astea (asteko egunen izenak).*
- *Lanbideak (lanbide batzuen izenak).*

- ...

*...elkarrekin kantatzen...* Taldean, gaiaren abestia nahiz lehendik ikasita ditugun eta gogoko dugun beste kantaren bat ere kantatzeari ekingo diogu. Bukatzean, kantatzeak sortzen dizkigun sentimenduez hitz egingo dugu.

Ikasten ikasteko beste modu bat abestiak direla konturatu ostean, proposamen bat luzatzen dizuegu, imitazioz, kantan aipatzen ez diren gainerako estatu eta hiriburuekin koplak txikiak osatzea eta buruz ikastea.

Oharra: Abestien letrak gida honen azken orrialdeetan dituzue.

## **11. Europako Herriak - Estaturik gabekoak**

*Lan egiteko era: Binaka/Talde handian*

*Materiala: Ikaslearen liburua, 15. or.*

Binaka, lehenik, eta talde handian, ondoren, orrialde honetako jarduera egiteari ekingo diogu, kultur-talde eta gizatalde desberdinek osatzen duten herrien Europa ezagutzeko asmoz.

## **12. Bidaien mapa**

*Lan egiteko era: Talde handian*

*Materiala: Ikaslearen liburua, 16. or./Irakurgaiak 6, 27. eta 28. or.*

Europa ezagutzeko modurik egokiena bidaiatzea izan daiteke, eta hori da, hain zuzen, jarduera horretan egingo duguna: Europari so egin ikuspegi kultural eta turistikotik.

Tarte bat emango diegu ikasleei, mapa aztertu eta bertako elementuez jabe daitezen, gero, talde handian aztertutakoaz hitz egiteko.

Orrialde horretan proposatu bezala, egin ezazue Europako estatu eta hiriburuen horma-irudi edo mapa eder/handi bat, eta koka itzazue gelako pareta batean. Koka itzazue mapa horretan ikasleek egindako bidaietako argazkiak dagozkien tokian, betiere, adieraziz zein den toki hori eta zer elementu ikusten den bertan. Ikasleren batek, edozein dela ere arrazoia, ez badu mapan kokatzeko argazkirik, eskura dezala bere ametsetako bidaiaren argazkia, Interneten edota bidaiaria-agentzietako liburuskaren batetik eta koka dezala.

Mapa hori osatzea oso gustuko izaten dute ikasleek; beraz, ez galdu egiteko aukera. Mapa begi bistan izatean, erreferentzia gisa erabiliko baitute behin baino gehiagotan, eta, ahalegin handirik egin gabe, Europako hainbat tokiri buruzko kokapenaz eta informazioaz jabetzen lagunduko baitie.

Irakurgaietan, Europako hainbat tokiri eta bitxikeriari buruzko testutxoak dituzue, “Ba al zenekien?” euskarrian. Irakur itzazue taldean, eta elkarrizketa sortu horiez nahiz ezagunak dituzuen beste hainbatez hitz egiteko.

### 13. Liburu artean

*Lan egiteko era: Talde handian*

*Materiala: Ikaslearen liburua, 17. or./Irakurgaiak, 29. or.*

Liburuak bidaiatzeko beste era bat izan daitezke eta baita hainbat tokiri buruzko makina bat gauza ikasteko bidea ere.

Jarduera hau talde handian egin ezazue, liburu-irakurketen inguruko esperientziak partekatzeko eta elkar kutsatzeko.

Irakurzaletasuna sustatzeko asmoz, unitate honetan proposatutako liburua, Anjel Lertxundiren “*Musubero mon amour*” da. Fikziozkoa bada ere, erreala izan daitekeen istorioa kontatzen du, Baionatik Bordelera eskubaloi neska talde batek egindako bidaian gertatutako gorabeherak. Liburu irakur erreza da eta interesgarriak diren hainbat gairen inguruan hitz egiteko parada ematen du, baita gure proiekturako erabilgarri izan daitezkeen hainbat ideia eman ere.

\* “*Musubero mon amour*”, Baionatik Bordelera bidaia:

- Arrazoa: Txapelketa, eskubaloi neska taldea.
- Bidaia kulturala ere egiten dute bide batez: Bordeleko alde zaharra, katedrala, museoak, dorreak, elizak... bisitatzen dituzte.
- Argazkiak. Oroimen eta bizipenen gordeleku eta horiek freskatzeko tresna gisa aurkezten dira.
- Garona ibaia ere aipatzen da.
- Elebitasuna: Frantsesez eta euskaraz hitz egiten dute. Gaizki ulertuak ere badira pertsonaien artean, hizkuntzak direla eta.
- Hilerokoa.
- Familiaren gaia: Gurasoen bereizketak sor ditzakeen sentimenduak, amoranteak... Etxekoengandik urrun izatea, etxekoan agurra: musuak eta aholku zaparradak.
- Sekretuak: Ikusitakoaren interpretazioak egiteko joerak sor ditzakeen gorabeherak.
- Esamolde eta hitz-joko politak daude liburu guztian zehar, ikasleen hiztegia aberastu dezaketenak:
  - “Aho zabalik eta begiak arranpalo geratu”.
  - “Hankaz gora eta ipurdiz behera erortzeko modukoa”.
  - “Aho bete hortz”.
  - “Jo eta ma”.
  - “Hor dago koska”, “Hor dago gakoa”.
  - ...
- Egoera jakin batzuek sor ditzaketen sentimendu ugariren adierazpena: etsipena, zalantza, beldurra, inbidia, amorrazioa, kemena...

Liburua irakurtzeko grina edo gogoia pizteko, irakur ezazue irakurgaietan duzuen pasarteak.

## 14. Lagunartean

*Lan egiteko era: Talde handian/Talde txikian*

*Materiala: Ikaslearen liburua, 18. or.*

Unitate honetako proiektua burutzeko, gure ikasleek hainbat lan bakarka osatu beharko dituzte eta beste hainbat taldean. Beraz, bakarlanaz eta elkarlanaz hitz egiteaz gainera, esperientzia txiki bat (elkartasun jolasa) praktikan jarriko dugu, elkarlanean nola moldatzen garen ikusteko, horren inguruan hausnartzeko eta, bide batez, ikasitakoaren arabera ekiteko, gure proiektua osatzen ari garen neurrian. Jarduera talde handian burutuko dugu. Elkartasun jolasa, berriz, lauzpabost laguneko taldetxoetan antolatuta.

Jarduera honetan, jarrerazko eduki hauek jorratuko ditugu:

Bakarlana eta elkarlana. Laguntza, errespetua, enpatia eta erantzukizuna, elkarlanerako derrigorrezko balio gisa. Parte-hartze demokratikoaz eta erabakiak demokratikoki hartzearen balioaz.

### **Elkartasun jolasa. Marrazkia elkartasunez osatu.**

Jolas honetan, nagusiki eta bereziki, elkartasuna landu nahi da. Elkartasun hori modu egokian eman dadin, taldean komunikazioa bermatu behar da, alegia, denek hitz egin, denek entzun, ideiak jaurti, eztabaidatu, erabakiak hartu, ardurak banatu eta lanari ekin beharko diote. Jolasean adierazi bezala, materialak ere mugatuak dira, erabaki egin beharko dute, zer egiteaz gain (irudiaren xehetasunak), nola (zein materialekin) eta nork egingo duen gauza bakoitza, eta hori dena helburu bat eta bakarra lortzeko: elkartasunez eta elkarlanean arituz egindako hondartza baten marrazki polit bat.

Jarduera osatzeko, urrats hauei jarrai diezaiekezue:

-Taldea txikiak osatu. Taldean liburuak adierazten duena irakurri. Material banaketa egin eta talde bakoitzak bere lanari ekin diezaioa. Bukatzean, taldetxoetan, elkarriketa sortuko dugu. Ikasle bakoitzak bere esperientzia kontatuko die taldekideei, egindako lana balioetsiz, alegia, egiteko modua, lana bera, bere lana taldearen partaide gisa, ikusi dituen zailtasunak, zein urratsekin edo hartutako erabakirekin ez dagoen konforme, zein urrats izan direla egokiak uste dituen...

Bukatzean, talde handiari azalduko diogu talde txikietan izandako elkarriketa.

Elkarriketa horren bidez, nahiko genuke ikasleak jabetzea gauza bera egiteko modu bat baino gehiago daudela, taldean lan eginez zailtasunak edo desadostasunak egon daitezkeela, taldekideak askotarikoak izan daitezkeelako, horiei aurre egiteko elkarriketa izan daitekeela bidea, batzuetan, norberaren gustukoa dena egiteko aukera izango dela taldearen izenean, beste batzuetan, berriz, bestelako aukerari ekin behar zaiola.

Irakasle, beha iezaiozu marrazkia egiteko ikasleek jarraitzen dioten prozedurari, nola hartzen dituzten erabakiak, nola banatzen lanak... (elkarriketaren bidez, denen artean, adostasunez, hitz eginez, edo ikasleren batek hartzen duen erabakia eta beste guztiak haren esana betetzen (menpekotasuna), erabakiak hartzeko zailtasunak ote dituzten ("niri berdin zait", "niri ere bai"...), erabakiorrak diren, ekimen handikoak...



## 15. Bertsoz

*Lan egiteko era: Talde handian*

*Materiala: Ikaslearen liburua, 19. or./DVDa*

Erabakiak hartzeko gaia lantzen jarraitzeko asmoz, irakur ezazue, taldean, orrialde horretako lehenengo ariketa, DVDa ikusi bitartean, ikasleek jakin dezaten zeri jarri behar dioten arreta berezia. Bukatzean, liburuan proposatzen diren galderen inguruan hitz egiteko elkarrizketa sor ezazue.

DVDa eskuragarri izan bitartean, ezin izango duzue jarduera hau burutu. Hala ere, eskuratzeko aukera baduzue, atal honi dagozkion irudiak, “Guggenheim ala Santi Mamiña”, Bertsoz Blai 6, 13. saioan aurki ditzakezue.

## 16. Hitz-errota

*Lan egiteko era: Talde txikian/Talde handian*

*Materiala: Ikaslearen liburua, 19. or.*

Pertsonak anitzak izatea izan daiteke elkar ulertzeko eta elkarrekin lan egiteko zailtasunen arrazoietakoa bat. Aurretik aipatu bezala, proiektua gauzatzeko, bakarlanean ez ezik elkarlanean ere aritu beharko dute ikasleek; beraz, ziurrena da, hainbat gatazka sortzea zenbait alderdi jorrazteko mementoa heltzean; adibidez, erabakiak hartzeko unean, batek era batera egin nahi duelako eta besteak bestera. Arazo eta gatazkei aurre egin eta konponbideak bilatzeko tresna edo bide nagusi gisa, elkarrizketa aurkeztu nahi dugu, hura praktikan jartzeko aukera emanaz, jarduera honetan eta hurrena datozen hainbatetan ere, batez ere, erabakiak taldean hartu behar dituzten guztietan.

Beraz, talde handian lehenbizi eta talde txikietan ondoren, unitate honetako proiektua garatu ahal izateko lehendabiziko erabakiak hartuko dituzte ikasleek. Erabaki-hartzeko prozesuaren amaieran, talde txikietan, esperientziaren inguruan hausnartu ostean, talde handiari prozesu hori nola gauzatu den adieraziko dio talde bakoitzeko bozeramaileak.

## 17. EUROPAKO GEOGRAFIA FISIKOA

*Lan egiteko era: Talde handian/Talde txikian*

*Materiala: Ikaslearen liburua, 20. eta 21. or.*

Europako geografia fisikoa aztertzen hasiko gara. Horretarako, Europako mapa fisikoari lehen begiratua emango diogu taldean.

Lehendabizi, *geografia fisikoa*, *mapa fisikoa*, *erliebea* eta *erliebe-elementuak* kontzeptuak argituko ditugu. Ikasleek lehendik dituzten aurre-ezagutzez eta liburuan ematen diren hiztegi-artikuluez baliatuko gara.

Ondoren, erliebe-elementuak zerrendatzeko eskatuko diegu ikasleei. Lehendik dakitenaz gainera, Europako mapa fisikoari behatzeko ere aginduko diegu, bertan izendatzen diren elementuak bila ditzaten.

Hauek dira mapan izendatzen diren elementu geografikoak, era batera edo bestera (zuzenean, hau da, hitz osoa erabiliz, edo laburduren bitartez; letra mota eta tamaina desberdinekin... ): lurmuturra (lm.); golkoa; itsasarte, kanala; uharteak (Balearrak); itsasoa; badia; aintzira; urtegia; penintsula; ordokia; mendikatea, mendiak (Pirinioak, Alpeak, Apeninoak, Karpatoak, Balkanak); muinoak; mendigunea; estuarioa.

Elementu horiek bilatu, zerrendatu, definitu.

- *Zer elementu geografiko izendatzen dira mapan? Nola? Zer laburdura, ikono, letra motarekin?*
- *Nola definituko zenukete horietako bakoitza?*

Elementuen definizioa dela eta, talde-diktaketa (diktaketa kolektiboa) egiteko aukera ere bada: irakasleak definizioa diktatuko du, behin bakarrik irakurriz, eta ikasle bakoitza hitzez hitz jasotzen ahaleginduko da; segidan, taldekideekin elkarlanean, bakoitzak jasotakoak kontrastatuz, definizio osoa eraikitzen ahaleginduko dira, ea irakasleak diktatutako hitzez hitzeko testura hurbiltzen diren; alderdi ortografikoa ere landu nahi izanez gero, definizio bakoitza ahalik eta osatuena izateaz gainera, zuzen idatzia egon dadin eska diezaiokegu lantalde bakoitzari.

## **18. Informazio-iturriak: Atlasak (koordinatu geografikoak)**

*Lan egiteko era: Talde handian/Bakarka/Talde txikian*

*Materiala: Ikaslearen liburua, 22. or./11. lan-koaderno, 36. or./CD-ROMa*

Iaz koordinatu geografikoei buruz ikasitako informazioa freskatzeko asmoz, liburuko jarduera talde handian osatuko dugu. Ondoren, ikasleek, bakarka, lan-koadernoko jarduera egiteari ekingo diote, eta, bukatzean, taldekideek egindakoarekin kontrastatu, berrikusi eta zuzenduko dugu. Gogoan izan CD-ROMean koordinatuen interpretazioan trebatzeko hainbat jarduera dituzuela.

## **19. Informazio-iturriak: Hiztegi entziklopedikoa**

*Lan egiteko era: Talde handian*

*Materiala: Ikaslearen liburua, 23. or./11. lan-koaderno, 37. eta 38. or.*

Ikasleek euren proiekturako mapa egokiak aurkitu eta informazioaz osatzeko iturri egoki gisa, atlasa eta hiztegi entziklopedikoa aurkezten ditugu. Horietan aurki dezaketen informazioa zer motatakoa den eta nola interpretatu behar duten jakiteaz gainera, informazio hori egoki erabiltzen ikasteko, taldean, liburuak eta lan-koadernoak proposatutako sekuentzia osatuko dugu.

## Lan-koadernoko jardueren erantzunak:

Testua	1	2	3
<i>Gai nagusia</i>	Eskandinaviako penintsula	Termopilak	Iberiar penintsula
<i>Azpigaiak</i>			
• Definizioa. Zer da?	BAI	BAI	<input type="checkbox"/>
• Kokapena	BAI	BAI	<input type="checkbox"/>
• Osaera	BAI	<input type="checkbox"/>	BAI
• Muga geografikoak	BAI	<input type="checkbox"/>	BAI
• Erliebea, paisaia elementuak	BAI	<input type="checkbox"/>	BAI
• Gertaera historikoak	<input type="checkbox"/>	BAI	<input type="checkbox"/>

*...gainerako zatirik handiena estepa da eta klima gogorra du.*

*1854-56: Krimeako gerra piztu zen.*

*Ukrainako penintsula da eta errepublika autonomoa...*

*Hbru. Simferopol.*

*Ureztapeneko kanalei esker zerealak eta labore industrialak ekoizten dira.*

*...Itsaso Beltzaren eta Azov-eko itsasoaren artean...*

*27.000 km<sup>2</sup>.*

EZ DAGO DATU EDO INFORMAZIOARIK

EZ DAGO DATU EDO INFORMAZIOARIK

## Klima eta paisaia

**Gertaera historikoak**

**Definizioa (Zer da?)**

**Hiri nagusiak**

**Jarduera ekonomikoa**

**Kokapen geografikoa**

**Azalera**

**Ohiturak**

**Monumentu arkitektonikoak**

## 20. Europako erliebea

*Lan egiteko era: Talde handian*

*Materiala: Ikaslearen liburua, 24. or./Irakurgaiak 6, 30. eta 31. or./11. lan-koadernoa, 39. orrialdetik 42.era/CD-ROMa*

Talde handian, orrialde horretako lehenengo jarduera irakurri eta elkarrizketa sortuko dugu gaikako entziklopedien inguruan hitz egiteko: *Ezagutzen dituzue?; Zer informazio mota azalduko dutela uste duzue?...* Ondoren, ikastetxeko liburutegira hurbil zaitezke, mota horretako liburuak badauden ikustera. Hala bada, har ezazue tarte bat, zuen proiekturako behar duzuen informazioa aurkitzeaz gainera, mota horretako informazio-liburuak ezagutzeko ere.

Bestetik, gainbegiratu, ezinbesteko irakur-teknika dugu liburu artean informazio bila gabiltzanean, esku artetik pasatzen den oro ezin baitaiteke irakur, baina

bai gainbegiratu, testu horrek zer informazio mota eman dezakeen ikusteko eta horren arabera erabiltzeko edo informazio berri bila hasteko.

Irakurgaiak liburuko testua aurrean dutela, jarduera hau osatzeko, tarte bat emango diegu ikasleei; gero, talde handian berrikusiko dugu, gainbegiratuaren teknikaren alderdirik garrantzitsuenak azpimarratzen ditugun bitartean.

Behin informazio bat interesgarrizat eta gure lanerako balekatzat jotzen dugunean, testu horren irakurketa zehatza egitea da hurrengo urratsa. Beraz, lan-koadernoko jarduerak lagun, talde handian, irakurgaietako testuaren irakurketa zehatza egingo dugu, ideia nagusi eta xehetasunez ere jabetzeko.

Lan-koadernoko 41. orrialdeko ariketaren erantzunak:

**PENINTSULAK:**

Eskandinaviako penintsula, Iberiar penintsula, Italiako penintsula, Balkanetako penintsula

**ITSASOAK:**

Ozeano Atlantikoa, Mediterraneo itsasoa, Itsaso Baltikoa, Itsaso Adriatikoa

**BARNE-ITSASOA**

Itsaso Beltza

**ITSASARTEAK**

Bosforo, Dardaneloak

**UHARTEAK EDO IRLAK**

Sizilia, Sardinia, Islandia, Britainia Handia, Irlanda, Mageroy

**ARTXIPELAGOA**

Britainiar uharteak

**LURMUTURRA**

Ipar lurmuturra

**LAUTADA EDO ORDOKIA**

Errusiako ordokia

## **21. Europako hidrografia**

*Lan egiteko era: Talde handian/Binaka*

*Materiala: Ikaslearen liburua, 25. or./11. lan-koadernoa, 43. or.*

Talde handian eta irakaslearen argibideak tarteko, Europako hidrografiari dagokion testua irakurriko dugu. Ondoren, ikasleek, binaka, lan-koadernoko jarduera osatzeari ekingo diote. Bukatzean, talde handian berrikusiko dugu egindako lana.

1. Europako ibaiak euren urak isurtzen dituzten tokiaren (ozeano edo itsasoaren) arabera sailkatuta.  
Europako ibaiak
  - Aktiar ozeanora: Petxora eta Ipar Dvina
  - Atlantikora: Mendebaldeko Divina, Vistula, Oder, Elbe, Rhin, Sena, Loira, Garona, Thames, Duero, Tajo, Guadalquivir, Guadiana,
  - Mediterraneora: Ebro, Po, Rodano
  - Kaspiar Itsasora edo Itsaso Beltzera: Danubio, Ural, Volga, Dniester, Dnieper, Don

2. Europako aintziren sailkapena kokagunearen arabera:  
Europako aintzirak
  - Europako iparraldean: Onega, Ladoga, Vanern, Peipus, Vattern, Malaren
  - Alpeetan: Lemán, Konstantza
  - Europako erdialde eta ekialdean: Kaspiar itsasoa, Balaton

## 22. Europako hidrografia

*Lan egiteko era: Talde handian/Binaka/Bakarka/Talde txikian*

*Materiala: Ikaslearen liburua, 26. or./11. lan-koadernoan, 44. orrialdetik 47.era/CD-ROMa*

Aurreko jardueran, hidrografiaren inguruan egindakoa nola egokitu eta gure proiekturako nola baliatu jakiteko, taldean, orrialde horretan agertzen den informazioa (aukerako bi fitxa eredu) irakurriko dugu. Ondoren, ikasleek, binaka, bakarka nahiz talde txikietan, lan-koadernoko jarduera osatzeari ekingo diote.

Lan-koadernoko sekuentzian, batetik, informazioa bilatu eta fitxak osatuko dituzte. Bestetik, hainbat ibai eta lakuren inguruko informazio (datu) zehatza bilatu beharko dute eta, bukatzeko, hainbat irizpideri erantzuten dioten grafikoaren interpretazioan eta osaketan trebatuko dira. Lan hori guztia egiteko, informazio-iturri askotarikoaren erabileran (mapei behatzea eta horiek interpretatzea, atlasetako informazioa...) eta informazio-bilaketan trebatuko dira ikasleak. Ikusten duzueenez, sekuentzia hori jarraian egiteko luze samarra izan daiteke; beraz, erregula ezazue denbora eta lana, asperdura eta nekea saihesteko.

Hona, lan-koadernoko 46. orrialdean osatu behar dituzten ariketen erantzunak. Koadro honetako informazioa ez da buruz ikastekoa; gogoan izan informazioaren trataera lantzen ari garela eta ez datuen memorizazioa.

IZENA	LUZERA (km)	IZENA	LUZERA (km)
Volga	3.690	Loira	1.020
Danubio	2.850	Tajo	1.007
Dnieper	2.200	Ebro	928
Ural	2.228	Duero	895
Don	1.870	Oder	854
Petxora	1.790	Rodano	812
Dniester	1.350	Sena	776
Vistula	1.068	Guadiana	744
Rhin	1.320	Po	652
Ipar Divina	744	Guadalquivir	560
Elbe	1.100	Garona	650
Mendebaldeko Dvina	1.020	Thames	336

Grafikoen aukerako erantzun batzuk:

1. Atlantikora isurtzen dituzte euren urak. Iberiar penintsulan daude.
2. Europako Ibai luzeenak dira.

### 23. Entzunaldia: Danubio urdina

*Lan egiteko era: Talde handian/Talde txikian*

*Materiala: Ikaslearen liburua, 27. or./CDa, abestiak, 8. pista*

Talde handian, orrialde honetako informazioa irakurri eta jarduera osatzeari ekingo diogu.

Entzunaldiari dagokionez, konpositore eta obraren inguruan hitz egin ostean, jar ezazue informazio hori guztia (konpositorearen argazkia, biografia eta obraren inguruko informazioa) konpositoreen txokoan.

#### ***Strauss, Johann II.a***

*Konpositore austriarra (Viena, 1825-99). Johann Strauss (1804-49) gorteko bals-zuzendariaren semea. Aitak sorturiko orkestra zuzendu zuen eta gorteko dantza-musika ere bai. Operetak (**Saguzarra**, 1874) eta 150 balsetik gora (**Danubio urdina**, 1867) konposatu zituen. Vienako musika arin eta dibertigarrian maisutzat jotzen da.*

Bals-ari dagokionez, koreografia asmatzen hasi aurretik, ziurta ezazue ikasleek ondo barneratu dutela hirutar erritmoa; horretarako, egin itzazue egoki ikusten dituzuen ariketak. Behin barneratuta eta erraz egiteko moduan daudenean, ekin iezaiozue koreografia asmatzeari.

#### ***balsa***

*iz. Alemaniar jatorriko dantza, erritmo hirutarrekoa, lehen aldiak oso azentu gogorra izanik. Bikote-dantza da, pausatua eta etengabeko bira-higiduraz dantzatzen dena; dantza horren doinua. **Vienako balsak**.*

Bestetik, gogoan izan, jarduera hau euren proiekturako egin behar dutenaren eredu dela; beraz, bakoitzak bere lanerako behar duen informazioa bilatu eta egokitu beharko duela.

Egindako lan horiek guztiak ere konpositoreen txokoa hornitzeko erabil itzazue.

### 24. Klima eta klimaren informazio praktikoa

*Lan egiteko era: Talde handian*

*Materiala: Ikaslearen liburua, 28. or.*

Bidaiarako klimari eta eguraldiari buruzko informazio praktikoa bilatzeko aitzakiarekin, klima eta eragile atmosferikoen inguruko informazioa freskatuko dugu, liburuko eta lan-koadernoko jarduerak bitarteko. Ondoren, ikasitakoak bizitzan, eta zehazki bidaietan, zer aplikazio izan dezakeen jabetuko gara, gure proiekturako informazioa bilatuz.

#### **Irakaslearentzako informazioa:**

##### **KLIMA ETA EGURALDIA KONTZEPTUAK BEREIZTEN**

Eguraldiaz hitz egiten dugunean, eskualde bateko atmosferaren egoera une zehatz batez kontuan hartuta aritzen gara; klimaz ari garenean, ostera, eskualde bateko

atmosferaren egoera orokorra, bere aldaketekin, jakina, hartzen dugu kontuan. Eguneko edozein momentotan ikusten edo “pairatzen“ dugun hori eguraldia izango litzateke; klima, berriz, denbora luzeagoan zehar leku batean atmosferaren portaera aztertuz, atera dezakegun “bataz besteko” antzeko bat izango litzateke. Horrek zer esan nahi du? Klima beroko lurralde batean, adibidez, une edo epe labur batean hotz ere egin dezakeela, eta, alderantziz, klima hotzeko lurraldean, bero; baina, horregatik, klima horiek ez diote uzten beroa edo hotza izateari.

## 25. Klimogramak

*Lan egiteko era: Talde handian/Bakarka/Binaka*

*Materiala: Ikaslearen liburua, 29. or./11. lan-koadernoan, 48. orrialdetik 50.era*

Talde handian, klimogramak zer diren irakurriko dugu aurre-ezagutzak martxan ipintzeko eta freskatzeko asmoz. Ondoren, banaka nahiz binaka, ikasleek klimogramak aztertu eta interpretatuko dituzte. Bukatzean, talde handian berrikusi eta egiaztatuko dugu egindako lana.

Talde handiko berrikusketa bideratzeko informazio baliagarria:

- Klimogramen interpretazioa egiteko orduan hiztegi tekniko zehatza erabiltzea eska iezaiezue ikasleei: *Hilabeteak, temperaturen grafikoa, temperaturak, graduak, prezipitazioen grafikoa, prezipitazioen kopurua, prezipitazioak, mm.*
- Klimogramen azterketa galdera hauen bidez bidera dezakezue:

### TENPERATURAZ HITZ EGITEKO...

- Urteko bataz besteko tenperaturaz hitz egin dezakegu, lehenik.
- Tenperatura bitartean, ondoren: kalkulu matematikoak eginez, altuenaren eta txikienaren arteko tartean jabetuko gara.  
*...tenperatura altuenetako hilabeteak hauek dira hain zuzen ere..., baxuenak beste hauek..., ikusten duzuen moduan tenperatura-bitartea neguko eta udako hilabeteen artean handia da, bitartea hain zuzen ere xxx °C-koa.*
- Tenperatura altuenak eta baxuenak:  
*Zein dira tenperatura altuenetako eta baxuenetako hilabeteak? Zein urtarori dagokie? Zein da tenperaturaren lerroak markatzen duen goranzko eta beheranzko tendentzia orokorra? (hilabeteak aurrera joan ahala, tenperaturak progresiboki igoz doaz...).*

### PREZIPITAZIOEZ HITZ EGITEKO...

- Urteko prezipitazio kopuruaz hitz egingo dugu, lehenik.
- Urteko prezipitazio kopuru horren erregulartasunaz, hilabete euritsuenak eta lehorrenak (euri gutxi edo ezer ez) aipatuz.
  - *Zein izan dira hilabeterik euritsuenak eta lehorrenak (izan baldin badira)? Zein urtarori dagokie? Orokorrean, prezipitazioei dagokionez, zer esango genuke?*
  - *Urte osoan zehar euri kopuru..., prezipitazioak urtean zehar erregularrak direla esan genezake..., hilabeterik euritsuenak... xxx urtaroei dagozkionak izan dira, alegia, xxx.*

- ...*prezipitazioak urtean zehar irregularrak izan direla esan dezakegu, hilabete batzuetatik besteetara alde handia baitago..., adibidez,...*
- ...*klimogramari erreparatuz, berehala konturatuko gara hilabete lehorrak eta euritsuak daudela, alegia, prezipitazioei dagokienez, alde nabarmenak daudela. Hilabete edo urtaro lehorrak dira, adibidez...*

Klimogramen osaketan eta interpretazioan trebatzeko, lan-koadernoko sekuentziaz gainera, CD-ROMean ere beste hainbat ariketa dituzue. Sekuentzia luzea izan daitekeenez, irakasleak erregulatu beharko du lana, denbora eta kudeaketa, ikasleen ezaugarriak kontuan izanik.

## 26. Europako klimaren krokisa

*Lan egiteko era: Talde txikian/Talde handian*

*Materiala: Ikaslearen liburua, 30. eta 31. or./11. lan-koaderno, 51. orrialdetik 53.era*

Klimaren inguruko informazioan trebatu ostean, Europako klima aztertzeke unea iritsi da. Bi orrialde horietako informazioa interpretatu (ohardun krokisa) eta jarduera osatzeko, ikasleak hiru laguneko taldean antolatuko dira. Irakasle, eman itzazu egoki ikusten dituzun azalpenak, jarduera martxan jartzeko. Bukatzean, talde handian, berrikus eta zuzen ezazue egindako lana.

Europako klimari eta paisaiari dagokion sekuentzia honekin bukatzeko, ikasleek informazioa euren proiekturako egokitu eta bidaiarako informazio praktikoa bihurtzeari ekingo diote, bonbillan adierazten den bezala.

## 27. Informazio-iturriak beste hizkuntzetan

*Lan egiteko era: Talde handian*

*Materiala: Ikaslearen liburua, 32. orrialdetik 34.era/11. lan-koaderno, 54. orrialdetik 56.era/CD-ROMa*

Europako erliebe, hidrografia, klima eta paisaiei buruzko ezaugarri nagusiak aztertu ditugu dagoeneko, eta hainbat informazio-iturritara jo horretarako: mapak, atlasak, hiztegi entziklopedikoak eta entziklopedia tematikoak...

Bidaia-proiekturako informazioa bilatzen hasita, badira oso erabilgarriak izango zaizkizuen bestelako iturri batzuk ere, hala nola **Internet** edota **bidaia gidaliburu eta aldizkariak**, besteak beste. Horiek aurkezten dira jarduera honetan. Har ezazue, beraz, tarte bat arakatzeko eta erabil itzazue informazioa bilatzeko.

Bestetik, behin baino gehiagotan gertatuko zaigu informazio bila hasi eta beste hizkuntza batzuetan idatzita aurkitzea, gehienetan gazteleraz, frantsesez edo ingelesez. Orrialde hauetan eta baita lan-koadernoko sekuentzian ere, informazio hori aztertzen eta egoki eta zuzen itzultzen eta behar dugunerako baliatzen erakutsiko digute.

Jarduera hauen guztien bidez, nagusiki, esaldi sinpleen egitura, itzulpen akats ohikoenak (hitzez hitzeko itzulpenak, joskera akatsak...) landuko ditugu.

CD-ROMean, esaldiaren joskera lantzeko hainbat jarduera aurkituko dituzue.



## 28. Europako geografia politikoa

*Lan egiteko era: Talde txikian/Talde handian*

*Materiala: Ikaslearen liburua, 35. or.*

Mapek toki bateko garai jakin bateko errealitatea irudikatzen dute, eta edozein dela ere arrazoia, errealitate hori aldatu ahala, mapak ere aldatu egiten dira. Europako garai ezberdinetako mapak ikustea besterik ez dugu, eta hori da hain zuzen jarduera honetan egingo duguna; batetik, Europako garai ezberdinetako mapei erreparatu, ondorengo ideia honetaz jabetzeko:

*Europako historian etengabe gertatu izan dira gatazkak nazioen artean, eta, horien ondorioz, estatuen arteko mugak aldatuz joan dira. Zenbait herrialde banatu eta estatu berriak sortu dira eta sortzen ari dira, gaur egun oraindik ere.*

Eta bestetik, gaur egungo errealitatea ondoen irudikatzen duen mapa zein den jabetu eta hori erabili, gure proiekturako egin beharreko kontsultak egiteko. Jarduera hau Euskal Herriko errealitateaz jabetzeko ere baliatuko dugu, hurrengo jardueretan gai horretan gehiago sakonduz.

Horrez gain, irakaslea historian iaioa edo zalea bada eta nahi badu, globoek bidea ematen dute Europako guden inguruan hitz egiteko eta horietako bakoitzak eragin duen aldaketei (mugak, estatu berrien sorrera...) erreparatzeko ere.

## 29. Espainia eta Frantziako estatuak

*Lan egiteko era: Binaka/Talde txikian/Talde handian*

*Materiala: Ikaslearen liburua, 36. eta 37. or.*

Euskal Herriko gaur egungo errealitateaz jabe daitezenean, ikasleek, taldean, egokiena den lana egiteko era aplikatuz, orrialde horietako jarduerak osatuz joango gara.

Lehenengo loturan adierazten den ideiarekin harira, “*Euskal Herriaren egitura politikoa aldatu egin da historian zehar*”, ideia hori ulertzen laguntzeko ekar ezazue gogora, adibidez, Erdi Aroan, Nafarroako erresuma Pirinioetako bi aldeetara hedatu zela hainbat mendez eta erresuma horrek bildu zituela gaur egungo euskal lurralderik gehienak eta baita inguruko beste hainbat ere.

Etxekoekin egindako bidaiei dagokienez, proposamen honekin nahiko genuke, ikasleek, gurasoekin batera, argazkiei begiratzea, izandako bizipenak freskatzeko, bisitatutako tokiak mapetan begiratzeko eta baita une ederra partekatzeko ere, eta, era berean, beste ikasleei euren bidaien berri ematerakoan, proiektuan egin beharko duten ahozko aurkezpenarako ere trebatuz joan daitezenean.

Krokisari dagokionez, gelako horma-irudiari behatuz, ikasleek krokis mutuan idatzi beharreko informazioa hurrengo hau da.

- Espainiako 17 autonomia-erkidegoen izenak.  
ESPAINIA: Galizia, Asturias, Kantabria, Gaztela eta Leon, Extremadura, Gaztela-Mantxa, Andaluzia, Murtzia, Euskal Autonomia Erkidegoa, Nafarroa, Valentziako Autonomia Erkidegoa, Aragoi, Katalunia, Errioxa, Madril, Kanariak, Balearrak.

- Frantziako 22 eskualde administratiboen izenak:

FRANTZIA: Akitania, Midi Pyrénées, Languedoc-Rousillon, Provence-Alpes-Côte d'Azur, Rhône Alpeak, Auvernia, Limousin, Poitou-Charentes, Centre, Borgoina, Franche-Comté, Alsazia, Lorrena, Champagne-Ardenne, Ile-de-France, Pikardia, Nord-Pas-de-Calais, Normandia Garaia, Normandia Beherea, Britainia, Pays de Loire, Korsika.

Beste alde batetik, jarduera honekin nahi duguna da ikaslea Euskal Herriaren errealitateaz jabetzea, alegia, bere probintziak bi estatutan banatuta daudela, eta ez horrenbeste estatu horietako (Frantzia eta Espainiako) probintzia edo eskualdeen izenak buruz ikastea eta kokatzen jakitea. Zuen asmoa bestelakoa bada, alegia, probintzietako izenak ikasi eta gogoraraztea, egin itzazue horiek kokatzeko beharrezko diren prozedurazko jarduerak.

Elementu geografiko nagusiei dagokienez, egizue beste hainbeste.

### **30. Europar Batasuna**

*Lan egiteko era: Talde handian*

*Materiala: Ikaslearen liburua, 38. eta 39. or.*

Talde handian, Europar Batasuna zer den jabetzeko bi orrialde horietako informazioa irakurriko dugu. Irakasle, eman itzazue egokiak eta beharrezkoak derituzoen argibideak jarduera hau osatu ahal izateko. Orrialde honetako informazio honetatik guztitik ikasleek koadernoan jaso beharreko informazioa besterik ez da buruz jakin behar dutena, alegia, zer den Europar Batasuna eta zer helbururekin osatu zen, besterik ez. Gainerako informazioa irakurtzeko eta taldean ulertzen saiatzeko da, DBHn izango dute eta denbora hura ikasteko.

### **31. Euroa**

*Lan egiteko era: Talde handian*

*Materiala: Ikaslearen liburua, 40. or.*

Jarduera honen bitartez, ikasleek Euskal Herrian izan diren moneta ezberdinak ezagutzeaz gainera, gaur egungoaren (euroaren) jatorria eta izaera nolakoa den ezagutzeko aukera ere izango dute.

Bestetik, ikasleek, bidaiatuko duten toki horretan erabiltzen den monetari buruzko informazioa ere aurkitu beharko dute eta eragiketak egin ere bai aldaketak egiten, diru horren balioa kalkulatzeko eta euren proiekturako informazio praktikoa bihurtzeko.

Interneten euroari buruzko informazio ugari duzue, aukera polita izan daiteke behar duzuen informazioa bilatzeko.

### **32. Azalpen-testuaren idazketa**

*Lan egiteko era: Talde handian/Bakarka/Binaka*

*Materiala: Ikaslearen liburua, 41. eta 42. or./11. lan-koadernoan, 57. orrialdetik 60.era/Irakurgaiak 6, 32. orrialdetik 37.era*

Ikasleei elkarlanean garatzen ari diren proiektuaren baitan, bakarlanean burutu beharreko alderdia osatzeko unea iritsi zaie. Europako estatu, herri edo hiriren bati buruzko informazioa bildu dute unitatea jorratu ahala; orain, informazioa egokitu eta azalpen-testua osatzea dagokie. Hura nola egin behar duten jakiteko, taldean, irakurgaietako testuak aztertu eta liburuko eta lan-koadernoko sekuentzia osatzeari ekingo diogu.

Bukatzean, 42. orrialdeko oharra kontuan izanik, ikasleek euren azalpen-testua bakarka osatzeari ekingo diote.

### **33. EUROPAKO GIZA GEOGRAFIA**

*Lan egiteko era: Talde handian/Bakarka*

*Materiala: Ikaslearen liburua, 43. orrialdetik 46.era/11. lan-koadernoan, 61. orrialdetik 64.era*

Sekuentzia honetan, Europako populazioaren banaketa eta hazkundearen berri emango zaigu, testu, grafiko eta datu taulen bidez. Horiek guztiak ulertu eta interpretatuko dituzte ikasleek eta lan-koadernoko jarduerari esker, grafikoen osaketan ere trebatuko dira.

Sekuentzia osoa burutu ostean, gai izan behar dute, datuak emanaz, edozein tokitako populazio-hazkunde orokorra (berezkoa eta migratorioa) kalkulatzeko eta dagozkien grafikoak interpretatzeko nahiz osatzeko.

Sekuentzia luzea da; beraz, erregula itzazue denbora-tarteak eta lana. Liburuko azalpenei dagokienez, talde handian, irakur itzazue eta argitu; lan-koadernoko jarduerak berriz, ikasleek, bakarka osa ditzatela eta, bukatzean, talde handian nahiz txikietan, berrikus eta zuzen ditzakezue.

### **34. Irakurri aurretik**

*Lan egiteko era: Talde handian/Bakarka*

*Materiala: Ikaslearen liburua, 47. or./Irakurgaiak 6, 38. orrialdetik 43.era*

Talde handian, liburuko orrialdean agertzen diren ariketak osatzeari ekingo diogu, ipuinaren inguruko iragarpenak eginez. Bestetik, unitate honetan, aurretik ikasitako gainbegiratuaren teknikaz baliatuz irakurriko dugun testuaz (ipaina) eta haren egituraz jabetzeko tartea ere hartuko dugu.

Bukatzeko, ikasleek, ipaina bakarka irakurriko dute.

### 35. Irakurri ondoren

*Lan egiteko era: Binaka/Talde handian*

*Materiala: Ikaslearen liburua, 48. or.*

Orrialde honetako hasierako baieztapen hori indartzeko (testuaren eduki nagusiaz jabetzeko ez da zertan testuko hitz guztien esanahia ezagutu behar) edo demostratzeko, hainbat galdera luzatu iezaiezue ikasleei:

- *Zer testu mota da? Zein da pertsonaia nagusia? Noren artekoa da komunikazio arazoa? Zein da zehazki komunikazio arazo hori? Zer irtenbide aurkitu diote?*
- *Istorio nagusiaz gainera, beste zein pertsonaiaren istorioa kontatzen da? Zein da pertsonaia horren ezaugarri nagusia? Zein da pertsonaia horrek nabarmentzen duen europarron ezaugarria?*
- *Zure ustez, zein dira testu honetan aurki daitezkeen mezu edo irakaspen nagusiak? Mezu edo irakaspen edo ideia horietako bakoitza adierazteko testuko esaldi bakar bat erabili beharko bazenu, zein hautatuko zenuke?*

Elkarrizketaren ostean, ikasleen hizkera eta idazkera aberasteko asmoz, binaka antolatuta eta liburuko urratsei jarraituz, ipuinean ezezagunak dituzten hitz eta esamoldeak biltzeari ekingo diote. Gero, talde handian, egindakoa elkarri azalduko diote, elkarrengandik ikasteko aukera baliatuz.

Bukatzeko, elkarrizketa eragingo dugu, ipuinak eskainitako interesdun hainbat gaiz hausnartzeko eta horien inguruan dugun iritzia adierazteko.

### 36. SMSak

*Lan egiteko era: Binbaka/Talde txikian/Talde handian*

*Materiala: Irakurgaiak 6, 44. eta 45. or.*

Ipuinaren izenburua aitzakia, tarte bat emango diegu ikasleei, irakurgaietako Xabier Paiaren “SMSak” bertsoak irakurri eta bertan jartzen duena ulertzen saiatzeko, liburuari buelta eman gabe. Seguruenik, gu baino iaioagoak izango dira ikasleak bertso horiek deszifratzen, gaur egun mugikorretatik komunikatzeko erabiltzen duten hizkuntza berean idatzita baitaude bertsoak. Bukatzeko, talde handian, bertsoak kantatzeari ekingo diogu.

Mugikorrak eta komunikazioa hizpide izanik, nahi izanez gero, mugikorren erabileraren inguruan hitz egiteko elkarrizketa bultza dezakezue:

- *Derrigorrezkotzat jotzen dugu? Zertarako erabiltzen dugu? Nola erabiltzen dugu? Nork ordaintzen du? Kontrolpean edo kontrolik gabe erabiltzeko joera dugu? ...?*

### 37. Bertsoz

*Lan egiteko era: Talde handian/Talde txikian/Bakarka*

*Materiala: Ikaslearen liburua, 49. or./Irakurgaiak 6, 46. orrialdetik 50.era/ CDa, abestiak, 12. pista*

Bertso sekuentzia hau dena jarraian lantzea luze gerta dakizuekeenez, erregula ezazue denbora eta lana.

Saharako informazio-fitxan bereizita agertzen diren ideia edo kontzeptu hauen inguruan aritzea interesatzen zaigu, ikasleek aurrez dakitena edo egiten duten interpretazioa elkarrekin partekatuz, hitz horiek iradokitzen dien guztia azalduz... Helburua ez da kontzeptu horien definizio itxi bat osatu eta ikastea, ahozkotasanak hainbat herri eta kulturatan duen edo izan duen garrantziaz ohartzea baizik.

- *Zer ote da...*
  - ...ahozko kultura?*
  - ...ohiturak eta historia transmititzea?*
  - ...memoria kolektiboa?*
  - ...inprobisatzea?*
- *Gurasoengandik, aiton-amonengandik edo beste edozeinengandik entzun eta ikasitako kanta, bertso, ditxo, esaera zahar, ipuin edo gertaerarik gogoratzen al duzue? Kontatu, kantatu, esan edo errezita itzazue.*
- ...

Munduko bertsolaritzari edo inprobisazioari buruzko erreportajea, talde handian irakurri eta interpretatzeari ekingo diogu. Lehenik, gainbegiratuaren teknika erabiliz, hitz egin ezazue testu motaz; ondoren, irakur ezazue, testuaren edukiaz jabetzeko:

- *Zein da testu honen gaia? Zer ideia adierazten ditu (azpi-gaiak)?*

Ahozko jolasak egiteko proposamenari dagokionez, hona hemen ideia batzuk: hitz-kateak osatu (*Tartaria, Tartarrean*), hitz batetik abiatuta istorio bat asmatu bat-batean (*Hitzetik istoriora*), gezurrak asmatu (*Egia da, egia da, neuk ikusi dudalako*), hitz bat esan batek eta besteak hitz hori alderantziz jarri (*Hitzak alderantziz*), errimak egin (neurriari erreparatu gabe)...

Puntuka aritzeko proposatzen den ariketan, “Kattalin” abestiaren doinua erabiltzea proposatzen zaizue. Ez utzi aipatzeke abesti honetan kulturen arteko mestizajea ematen dela, euskal hitzak badira ere, musika ingelesa baita. *Hitzak: Jon Mirande. Musika: "Oh my darling Clementine"*

Bertso-sekuentzia honekin bukatzeko, taldean nahiz bakarka, Pello Esnalen “Teleferikoan” bertso-sorta irakurriko dugu, ondoren kantatzeko.

Oharra: Abestien letrak gida honen azken orrialdeetan dituzue.

### 38. Hiztunak eta hizkuntzak

*Lan egiteko era: Talde handian/Talde txikian/Binaka/Bakarka*

*Materiala: Ikaslearen liburua, 50. or./Irakurgaiak 6, 51. eta 52. or.*

Jarduera honetan ikerketa txiki bat egitea proposatzen zaizue, hau da, Interneteko bilatzaile bat erabiliz, Europako hainbat herrialdetan hitz egiten diren hizkuntzak zein diren bilatzea. Jarrai iezaiezue liburuko urratsei bilaketa hori bideratzeko. Baliabideen arabera, antola ezazue lana egokien ikusten duzuen moduan, binaka, talde txikietan edo talde handian eginez. Europako hizkuntza guztien zerrenda osatzea gehiegizkoa izan daiteke; beraz, ziurta ezazue Euskal Herri inguruko herrialdeetakoak bilatzen dituztela eta baita euren proiektuan aurkeztuko dituzten herrialdeenak ere, informazio hori proiekturako baliatu beharko baitute.

Europako hizkuntzekin bueltaka gabiltzala, tarte bat emango diegu irakurgaietako txisteak, “Txorakikeriak”, bakarka irakur ditzaten; ondoren, talde txikietan antolatuta, imitazioz, txiste berriak asmatzeari ekin diezaiotela; bukatzean, talde handian, txisteen saioa martxan jarriko dugu, asmatutako txiste berriekin gozatzeko asmoz.

### 39. Hizkuntza gutxituak

*Lan egiteko era: Talde handian/Talde txikian*

*Materiala: Ikaslearen liburua, 51. or.*

Europako hizkuntzen artean badira ofizialak direnak, hizkuntza gutxituak eta baita nazioarteko harremanetarako erabiltzen direnak ere. Ikasleak ideia horretaz jabe daitezten, alegia, hizkuntza guztiak ez direla berdinak legearen aurrean, talde handian, orrialde horretako jarduera osatuko dugu, elkarrizketa baten bidez gure inguruko hizkuntzen egoeraz hausnartzeko eta gure iritzia adierazteko.

Bidaia-proiekturako elkarrizketa-gida osatzeari dagokionez, proiektukideekin batera taldetxoetan antolatuta, bilaketa lana egin beharko dute, horretarako baliabide aproposena Internet izan daiteke.

### 40. Ingelesa. Excuse me but, where are you from?

*Lan egiteko era: Talde handian/Binaka/Bakarka*

*Materiala: Ikaslearen liburua, 52. eta 53. or.*

Ingelesa dugu, gaur egun, nazioarteko komunikazio-hizkuntza nagusia. Europara bidaiatzen dugunerako edo eta Europako beste herrialdeetako bisitariak gure herrian topatzen ditugunerako, haiekin hitz egiteko oinarritzko galderak egiten eta erantzunak ematen ikasiko dugu sekuentzia honetan. Norberaren aurkezpena egiteko eta bizilekuaren ezaugarriak azaltzeko behar den hizkuntza landuko dugu.

#### Procedure:

- *Ask them what typical question a foreigner might ask them. E.g. ‘What’s your name?’ ‘Where do you come from?’*
- *Ask them to think of a few more questions in pairs / groups of three.*
- *Collect their ideas together.*
- *Ask them to open the book and check their list against the ideas in the book.*

- Add any extras.

- Check your questions with the ideas below.

<i>What's your name?</i>	<i>My name is...</i>
<i>Where are you from?(country)</i>	<i>I'm from the Basque Country</i>
<i>Where is that?</i>	<i>It's between France and Spain</i>
<i>Where are you from? (town)</i>	
<i>Where is that?</i>	<i>It's near, between</i>
<i>What's the population of the country / town?</i>	<i>It is about 2 million.</i>
<i>What's it like?</i>	<i>There are lots of mountains. It's very green. It's quite industrial.</i>  <i>It's by the sea. It's in the hills / mountains. It's a big / small / medium town.</i>
<i>What's the weather like?</i>	<i>It rains a lot. It's not very hot and not very cold.</i>
<i>What language do you speak?</i>	<i>We speak Basque and Spanish.</i>
<i>How do you say 'hello' 'goodbye' in your language?</i>	<i>Hello is 'kaixo'. Goodbye is 'agur'.</i>
<i>What places are famous in your country?</i>	<i>Bilbao for the Guggenheim. San Sebastian-Donostia for the beaches and the pintxos. Iruñea –Pamplona for the running of the bulls. Vitoria-Gasteiz for the parliament. Gernika. Rioja for wine. Mountains. Beaches – surfing.</i>
<i>What people are famous from your country?</i>	<i>Juan de Elcano first sailed around the world with Magellan. Eduardo Chillida - famous sculptor. Arzak, Berasategui, Arguinaño - chefs. Miguel Indurain – cyclist. Xabi Alonso – footballer. Bernardo Atxaga – writer. Balenciaga, Paco Rabanne – fashion designers. Ignatius Loyola – founder of the Jesuits.</i>

<i>What are the best things to do in your country?</i>	<i>People like to walk in the mountains, go to the beach, surf. I like to ....</i>
...	
...	

- *Ask them to answer the questions for themselves, using some of the the expressions offered in the book. They can help each other with common information.*
- *Go round helping or do some of the questions with the whole group.*
- *Get them to role play the dialogue; one pretending to be a foreign visitor.*
- *Try to make real use of the work done, by getting in touch with a real European person.*
  - *Ask a foreign visitor to come into class so the students can ask them the same questions.*
  - *Add personal information: age, family, interests and put your information on the Web to find a pen friend.*  
e.g. <http://www.efriends.pnet.pl/>

#### **41. Ohiturak, musika, folklorea**

*Lan egiteko era: Talde handian/Talde txikian*

*Materiala: Ikaslearen liburua, 55. or./Irakurgaiak 6, 53. eta 54. or./CDa, abestiak, 9., 10. eta 11. pistak*

Komikiaren irakurketa eta elkarrizketa bidez, Gabonak nola eta zergatik ospatzen ditugun jabetu gara; orain, Europako zenbait tokitan Gabonak nola ospatzen diren jakiteko, talde handian, irakurgaietako testuak irakurriko ditugu.

Bestetik, eta proiektuari begira, liburuak aurkezten digun hainbat herrialde eta euren kultura-adierazpenak eredu hartuta, horien inguruan hitz eginez gure proiekturako ideiak hartu eta informazioa bilatzeari eta proiekturako egokitzeari ekingo diogu.

CDan, Galiziako musika, “Chalaneiro”, Benito Lertxundik abestutako “Oi ama Euskal Herria” eta Oskorri eta Wendalen eskutik, “Tirauki” abestiak entzuteko aukera duzue.

Oharra: Abestien letrak gida honen azken orrialdeetan dituzue.

#### **42. Artelanak: Europako ibilbideko museoetako artelanak eraldatzen**

*Lan egiteko era: Talde handian/Talde txikian/Bakarka*

*Materiala: Ikaslearen liburua, 56. orrialdeetik 59.era*

Talde handian, liburuko informazioa irakurtzerakoan, museo bakoitza non dagoen Europako mapan behatu. Bertan azaltzen diren museo guztiak garrantzi handikoak dira, nahiz eta garrantzia duten guztiak ez egon bertan.

Ematen den informazio osoa ez da zehaztasunez interpretatzekoa. Hainbat pertsonaia historiko azaltzen dira bertan, eta luze joko luke guztien berri jasotzeak. Nolanahi ere, jarduera burutzean, irakaslearen laguntzaz hainbat hitzen esanahira




hurbiltzea komeni da, testuinguruan ulertzeko: leinua, museoaren funtsa, apaintze-arteak, arkeologia, pedagogikoa, katalogoa, pinakoteka, arkitektura, komunen ganbera, argitalpen-zientifikoa, monarkia...

Ideiak sinplifikatuz, azken batean, museoak hainbat pertsonaiak artea biltzeko izan zuten grinaren ondorio dira gehienak, baina, ondoren, estatuen esku geratu ziren. Hau da, biltzaile batek edo talde batek eginiko bilduma ondoren estatuari edo hirari eskaintzen zion. Frantziako Louvre museoaren kasuan, berriz, estatuak berak bultzatutako ekimena dugu. Museo horiek estatu bakoitzaren kultur ondarearen ikur dira. Ondarea unibertsala da, ordea, autoreek estatuen mugak gainditzen baitituzte.

Ondoren, museo bakoitzeko bildumaren adierazle bezala aukeratu ditugun obrei behatu eta ea egileren edo obraren bat ezagutzen duten galdetu.

Informazio-iturriak (eta txoko zurirako gurasoen laguntza ahal bada) erabiliz, talde bakoitzak bere ibilbidean aurki ditzakeen museorik esanguratsuenetan biltzen diren hainbat autore eta obra bila ditzala (nahi izanez gero, gela osoaren artean Europako museo garrantzitsuenak ere lan daitezke), eta gustukoenak edo esanguratsuenak argi samar fotokopiatu (handitu behar bada) eta kartulinetan (kartulina papera baino handiagoa bada, marko funtzioa bete dezake) itsatsi; ondoren, margolanaren arabera, margo ezberdinak erabiliz (tenpera, argizaria, olioak, klerak...), norberak bere erara margotuko ditu. Lanaren azpian edo alboan, margolanaren izena, jatorrizko egilea, museoari buruzko informazioa —izena eta gutxienez non dagoen— eta ikaslearen izen-abizenak jarriko dituzte erakusketa egiteko.



## 42. Bueltako komikia

*Lan egiteko era: Bakarka/Talde handian*

*Materiala: Iraklearen liburua, 54. or.*

Tarte bat emango diegu ikasleei, bakarka, komikia irakur dezaten, ondoren, talde handian, elkarrizketa sortuko dugu:

- Komikiko xehetasunen inguruan hitz egiteko.
- Ikastetxean Gabonetarako prestatuko dituzuen ekintzen inguruan hitz egiteko.
- Ikastetxetik kanpo, herrian, Gabonak nola ospatzen dituzten jakiteko.

Bukatzeko, eta komikiko azken binetan, Jonek egindako galderari helduz: *Aizue, sasijakintsuok, zuok ba al dakizue noiztik eta zergatik ospatzen den Olentzero eguna?*

Elkarrizketa sortuko dugu, Olentzeroren jatorriaren eta ospakizunen inguruan hitz egiteko. Horrez gain, Eguberriekin zerikusia duten hainbat esamolde gogora ekartzeko aukera ere aprobeztatuko dugu, eta bukatzeko, Eguberrietako kantak abesteari ekingo diogu.

Irakaslearentzako Olentzeroari buruzko informazioa, Interneten aurkitua:

### NOR DA OLENTZERO HAU?

- Toki desberdinetan izen desberdinez deitu zaio: Olentzero, Olentzaro, Orentzaro eta Onentzaro, beste batzuen artean. Olentzero izan da nagusitu dena.
- Hitz honekin, gure pertsonaia honen izenaz gainera, urte-garai bat izendatzen da: Gabonak eta beren ingurua.  
Amaitzean dagoen urte zaharra adierazten du Olentzerok.

### NOLA IRUDIKATU DU HERRIAK?

- Olentzerok, jatorriz, suarekin du erlazio zuzen-zuzena. Sua eta erretzearen ingurutik etorri da zenbait interpretazio eta ohitura, adibidez: ikazkin moduan irudikatzen hastea, tximiniatik behera jaitea edo pipa erretzen agertzea. Hiru kasuetan sua da adierazle garrantzitsua. Sua da zaharra berritzen duena, okerra garbitzen duena. Sua da indar berriaren adierazle.
- Zenbait herri euskaldunek pertsonaia gisa irudikatzen dute sasoi hau eta pertsonaia honek Gabon gauean egiten du bere etorrera: Olentzero da.
- Gure Olentzero artzaina da zenbait tokitan, nekazaria beste batzuetan, ikazkina beste batzuen ustetan. Azken jentila dela diote batzuek, Kristoren jaiotza zabaltzera etorria; urteak dituen egunak baino begi bat gehiago duen gizona dela ere esan izan da, 366 begi dituen gizona dela, alegia.

### ZER OHITURA DAGO BERE INGURUAN?

- Zenbait herritan lasto eta trapuz egindako irudi baten bidez irudikatzen dute, eta Gabon gauean, lepoan hartu eta etxez etxe joaten dira oles egitera. Beste herri batzuetan, berriz, pertsona bat izaten da Olentzerok jantzen dena. Tximinia ondoan ere jartzen da zenbait tokitan Olentzeroren irudia, txapela buruan eta igitaia eskuan duela. Igitaia, sua bezala, bizi-indarraren adierazle da: zaharra mozten du, kimu berriari lekua egiteko.

- Oso hedatua izan den beste ohitura bat: Olentzero enborrarena, alegia. Enbor baten bitartez ere irudikatu izan du herriak Olentzero. Gabon gauean Euskal Herriko etxe askotan, enbor handi bat jartzen zen sutan, Olentzero subila hain zuzen ere, hori izanik erretzen zena.
- Subil horrek indar berezia izango du: abereak (ondasun-adierazle bezala), eta etxeokoak zainduko ditu hurrengo urte guztian.
- Kristau-pentsamoldeak Kristoren iragarle bihurtu zuen pertsonaia, hasiera batean herrian zeukan esanahia gaindituz.
- Hirurogeigarren hamarkadatik aurrera, euskal umeei opariak ekartzera etortzen den pertsonaia dugu Olentzero.
- Era guztietara, geure ikur bilakatu da Olentzero eta geure gaur egungo gizartera egokitu dugu, kultura guztiek egiten duten bezala.

#### ESAERA ZAHARRAK

Gabonen inguruko esaera zahar bildumatxoa duzu hemen. Batzuen esanahia ulertzea zaila denez, aitona-amonengana jo eta haiei galdetu!

1. Abendua jai huts eta gau huts.
2. Urte zaharra bukatzean, saguzarra burduntzian.
3. Sua! Gabonetan txapan eta San Juanetan plazan.
4. Eguarrietan eguzkia; Pazkoetan elurra.
5. Eguarri ondorengo lehenbiziko sei egunak nolako, hurrengo urteko lehenbiziko sei hilabeteak halako.
6. Eguberri argi, lastotsu ogi.
7. Eguberri argitsu, ogia gero lastotsu.
8. Eguberri, arimak ere berri.
9. Eguberri berri, nik atorra berri; maukarik ez, ajolik ez.
10. Eguberri, eroak igerri, zohiek ere larri.
11. Eguberri ilunetan soroetan gari asko.
12. Eguberriko aro beroak, Bazkokoz histen.
13. Eguberrirainoko larrazkena, Pazko arteko neguaren ama.
14. Eguberriz itzalketa dabilanak bilatuko du Pazkoz supazterra.
15. Eguberriz ulitzak... kasu! Ikusiko dituzu Pazkoz horma ziriak.
16. Hau da gure Olentzero, Gabonetako erregetxo. (*Libek asmatua eta bidalia*).
17. Eguberriz leihoan, bazkoz sutondoan.
18. Eguberri ilargiarekin, artzaina axuriekin.
19. Eguberritan eguzkia, bazkotan elurra.
20. Eguberritan ilbehera, inauteriz ilberri.

(Atal honetan bildutako hainbat esaera zahar, J. Ormazabalaren *Esaera zaharrak eta txiste berriak* eta Antonio Zavalaren *Esaera zaharren bilduma berria* liburuetatik hartutakoak dira).

Esamolde hauetako batzuk erranen txokoa hornitzeko erabil ditzakezue.

### 43. Proiektua gauzatzen

*Lan egiteko era: Talde handian/Bakarka/Talde txikian*

*Materiala: Ikaslearen liburua, 60. or.*

Dagoneko proiekturako hainbat lan burutuak dituzte gure ikasleek, erabiliko dituzten testuak, argazkiak, musikak... Orain, bakarka nahiz taldean egindako lanak txukun antolatu eta euren aurkezpen sortzailea osatzeko unea iritsi zaie. Azken lan hori nola egin erabakitzeko, talde handian, proiektua gauzatzeari dagokion orrialdea irakurriko dugu eta erabakiak hartu ostean burutze-lanei ekingo diegu.

Baina, hori egin baino lehen, eta liburuan ematen diren argibide eta aholkuez gainera, ikasleei jakinarazi/gogorarazi behar zaie:

- Eskaner bidez lortzen ditugun irudietan tamainari erreparatu behar zaiola. Aurkezpenean txertatu aurretik irudiaren erresoluzioa egokitzea (txikitzea) komeni dela, aurkezpenean izango duen tamainara ahalik eta gehien egokitzea, alegia. Lan hori irudi-editore batez egiten da, “tamaina edo erresoluzioa aldatu” aukeraz baliatuta.
- Aurkezpenean txertatuko diren irudi-, audio- eta bideo-artxibo guztiak aurkezpen artxiboarekin batera gorde behar direla, karpeta berean.
- Aurkezpenaren kopiak egitean (beste ordenagailu batera, edo edozein kanpo-euskarrira), aipatu artxibo guztiak kopiatu behar direla: aurkezpena, irudiak, audioak eta bideoak.

Aurkezpen sortzaileari dagokionez, gogoan izan, mota honetako lana egiten duten lehen aldia dela; beraz, zuen laguntzaz gainera, zuen animoa ere beharko dute.

### 44. Sintesia

*Lan egiteko era: Talde handian/Bakarka*

*Materiala: Ikaslearen liburua, 61. orrialdetik 64.era*

Unitate honetan hainbat eduki (kontzeptuzko, prozedurazko eta jarrerazko) landu dira. Hauetako gehienak prozesuaren baitan behatu eta ebaluatu beharrekoak: **informazio bilketa eta trataera**, arte hezkuntzako hainbat lan, talde elkarrizketak...) dira, bertan hartzen baitute zentzua. Baina badira beste batzuk, unitate bukaeran ebaluatu daitezkeenak eta ebaluatuko ditugunak. Orrialde hauek, ikasleei eta baita irakasleei ere, lan horri errazteko pentsatuak izan dira. Unitatea landu ahala egindako lanari begiratzeko parada emango digute, hainbat balorazio egiteko, ikasleek eurek dakitenaz jabetzeko eta ez dakitenaz ohartuz erreparatu eta ikasi beharrekoa sakontzeko aukera emanaz.

### 45. Hemen edo han, gure Txanelan!

*Lan egiteko era: Talde txikian/Talde handian*

Talde handian, unitatea landu bitartean bildutako argazkiak antolatu eta haiei dagozkien azalpentxoak idatzi ondoren, gure albumeko/aurkezpen sortzaileko bigarren atala osatuko dugu. Atal bakoitza bukatzen duzuenean, har ezazue denbora egindakoa lasai ikusteko eta hartaz gozatzeko.

GABON ZORIONTSUAK IGARO, LAGUNOK!  
ETA ONDO MEREZITAKO ATSEDENA HARTU!

ERANSKINA: ABESTIEN LETRAK (bilduma egiten ari bazarete)

**KANTA-KANTARI: EUROPA**

Letra: Joxan Ormazabal

Musika: Imanol Urbietta.

*Iparraldean  
Itsaso Artikoa  
Ekialdean  
Kaspiar Itsasoa  
Mendebaldean  
dago Atlantikoa  
Hegoaldean  
Mediterraneoan.*

Begira Europari  
gure lurraldeari  
itsaso eta mendi  
penintsula ugari  
uharte eta hiri.  
Begiratu mapari  
ikusi ta ikasi  
elkarrekin kantari.

Albanian Tirana  
Hungarian Budapest  
Bulgarian Sofia  
Islandian Reykjavik  
Finlandian Helsinki  
dakienak badaki  
Alemanian Berlin  
eta Irlandan Dublin.

**OI AMA ESKUAL HERRI GOXUA**

Hitzak: Etxaun Iruri

Musika: Herrikoia

Diska: Benito Lertxundi.

Anai etxen da ezküntü  
bukatü niz oain joaitera  
ene opilaren egitera  
Pariserat banüazü

Oi ama Eskual Herri goxua  
zutandik urrun triste bania  
adios gaixo etxen dena  
adios Xiberua. (bis)  
Pariseko bizitzia  
lan kostüzuriaz bagiazü  
bena berantzen zütadazü  
zure berriz ikustia.  
Oi ama Eskual Herri...

## **KATTALIN**

Hitzak: Jon Mirande

Musika: "Oh my darling Clementine" Oskorri

Ene maite, ene maite  
ene maite Kattalin  
sekulako ta betiko  
galdu zaitut Kattalin.  
Etxe txiki txukun baten  
zure aitetamekin  
zinen bizi, zintzo bizi  
ene maite Kattalin.  
Ene maite,..  
Baina eder zinen zinez  
zine izar bat bezin  
ile gorri (baita zorri)  
zuk bazenun Kattalin  
Ene maite, ...  
Ibaiaren zinen joaten  
zure ahate beltzekin  
goiz batean, bat batean  
ito zinen Kattalin.  
Ene maite, ...  
Hilerrian bada lore  
euzki lili, krabelin  
zu zaituzte badut uste  
ongarritzat Kattalin.  
Ene maite, ...

Espazio arazoak tarteko, unitate honetan grabatu ezinik geratu zaigun kanta baten erreferentzia:

### **HIRIAK**

Hitzak: Joseba Sarrionaindia

Musika: Ruper Ordorika

Diska: Ruper Ordorika, *Memoriaren mapan*, ELKAR

Zeure gorputza  
da orain nire hiria  
zeu zara orain  
nahi dudan aberria

Bizitzeko ez zait  
horrenbeste ardura

Paris Tombuctú  
New York Bombay Segura  
Berlin Katmandu  
Sydney Addis-Abbeba  
Aljer Lisboa Budapest  
Kiev Ottawa

Baina orain zeu zara  
nire hiriburua  
aberi hilobi  
neure sorlekua

Hiltzeko ere  
berdintsu zait herria

Lome Frigurgo  
Quito Tallin Ruanda  
Taskent Mutriku  
Shangai Istanbul Praja  
Praga Kigali Bangok  
Amsterdam Basora

Baina orain zeu zara  
nire hiriburua  
aberi hilobi  
neure sorlekua

Zeure gorputza da  
orain nire hiria  
zeu zara orain  
nahi dudan aberria

## Musikako lan-koadernoak

### 2.1 Melodia eraikitzen

*Lan egiteko era: Talde handian/Talde txikian/Bakarka*

*Materiala: Musikako lan-koadernoak, 2.1 fitxa/CDa, jarduerak, 6. pista*

*Uso zuria* kanta ezaguna da ariketa hau burutzeko aukeratu dugun doinua. Ikusiko duzuen bezala, bost konpas hutsik daude. Azpialdean, berriz, hutsune horiek bete asmoz, sei konpas agertzen dira. Baina kontuz, bat sobera dago, ezker-ezkerrekoa.

CDko grabaketan, bi abeslarik melodia solfeatu dute, baina hutsik dauden konpas horietara iristean, isildu eta, melodia zein notak osatzen duten misteriopean gorde asmoz, eskusoinu batek bete du haien zeregina.

Lehenik, arreta handiz entzunaraziko diegu CDa, abesti hau modu askotan kantatzen baita, eta, agian, zenbait aldaera egon daitezke zuen ikasleek eta zeuek ezagutzen duzuen doinuaren eta guk aukeratu dugunaren artean. Gero, lehenengo hutsunea betetzea proposatuko diegu. Horretarako, behealdeko sei konpas horietako bat aukeratu beharko dute. Eta, horrela, lasai eta patxadaz, hutsune guztiak betetzea lortu arte. Solfeatzerakoan arazoak baldin badaude, txirula ere erabil daiteke.

Era honetako ariketak, bakarka egin aurretik, talde txikitik edo arbelean lantzea ere egokia izaten da.

### 2.2 Txirula jotzen ikasten: *Europa*

*Lan egiteko era: Talde handian/Bakarka/Talde txikian*

*Materiala: Musikako lan-koadernoak, 2.2 fitxa/CDa, jarduerak, 7. pista*

Beste orkestratxo bat antolatu asmoz, hain ezaguna den melodia hau aukeratu dugu. Horretarako, perkusiozko 3 musika-tresna aukeratu ditugu oraingoan ere. Danborrak konpasaren lehen denbora (garrantzitsuena) markatuko du. Eta klabeek eta triangeluak, horiek biak tartekatuz, bigarren denbora (ahula).

Aurreko urteetan ere aipatu genuen, baina berriz ere azalduko dugu gure nahia. Ikasle guztiei eman behar zaie tresna guztiak erabiltzeko eta denekin frogatzeko aukera. Gure eskolan ez dugu beti triangelua edo beti txirula joko duen espezialistarik behar. Egunen batean, emanaldi bat eskaini behar eta gauza txukun bat aurkeztu nahi badugu, orduan izango da ikasle bakoitzari ondoen erabiltzen duen tresna emateko unea. Baina, bitartean, ikasle guztiek denetik probatu behar dute.

Solfeoari eta txirularen arloari dagokionez, konpas batzuetan *puntuak* duen *beltza* agertzen da dagokion *kortxeaz* lagundurik, eta askoz gehiagorik ez. Agian, zerbait aipatze aldera, arreta eskatu lehen pentagramako azkeneko konpasean agertzen den beheko **Re** horrekin, hori baita kanta osoan, txirula jotzeko garaian, eskuineko eskua erabili beharko den une bakarra.

Ez da gaizki egongo, errepasso gisa, puntuaren funtzioa eta balioa gogoratzea, eta txirula jo aurretik ohiko “entrenamendu” saiotxoak egitea. Bestalde, ohikoa izango da honelako kantak edo melodiak lantzeko prozedura: erritmoa irakurri, txaloz lagunduta



nahi bada, noten izenak erritmikoki irakurri, solfeatu eta txirula jo. Goian aipatu bezala, 3 perkusio-tresna erabiliko ditugu, eta horiek ere banan-banan landuko ditugu, betiere behekotik hasita, danborra kasu honetan. Ikasleek bakoitzaren zeregina barneratu dutela eta erritmoari ongi jarraitzen diotela ikusitakoan, elkarrekin batera joko dute hiru perkusio-tresnek. Baina kontuz, melodiarekin batera joan beharko dute. Hala ez bada, izugarritzko musika-desoreka sortuko da. Ez izan presarik, pixkanaka lortu behar dugu eta.

**Charpentier, Marc Antoin** da melodia honen egilea. Komeniko litzateke gure ikasleei nor zen esatea, eta baita informazioa bilatzeko eskatzea ere.

### 2.3 Konpasa

*Lan egiteko era: Bakarka/Talde handian/Binaka*

*Materiala: Musikako lan-koadernoak, 2.3 fitxa*

Konpasaren inguruko zenbait zehaztasun aipatzen dira orrialde honetan. Konpasa ez da betidanik erabili izan. Aspaldi-aspaldiko partitura bat ikusten badugu konturatuko gara konpasa ez zela erabiltzen. Notak bata bestearen segidan ipintzen ziren melodian zehar, inongo zatiketarik egin gabe. Horren adibide ditugu musika *gregorianoaren* partiturak. Interesgarria izango litzateke partitura horietako bat ikasleei erakustea. Ez da hain zaila kanta gregorianoen partitura baten argazkia topatzea. Agian, gainera, partitura berean beste bitxikeria bat erakusteko aukera ere izango dugu, melodia pentagraman idatzita egon ordez tetragraman ikusiko baitute.

Baina XV. mendean, polifoniako lehen lanak sortzen hasi ziren garaiko musika sortzaileak. Interpretatzeko garaian ahots edo musika-tresna ezberdinen arteko sinkronizazioa behar-beharrezkoa zela ikusi zenean, zerbait egin behar eta konpasaren erabilera ezarri zen.

Konpasak iraupen bereko multzoetan zatitzen ditu notak. Froga gisa, ikasleen erreakzioak jaso ahal izateko, partitura bat idatzenezake arbelean, konpasaren marrak edo marra zatitzaileak ipini gabe.

Partiketa horrek ematen die izena konpas mota ezberdinei. Zenbaki bidez adierazten dira partituraren hasieran. Guk, orain arte, konpas mota idazteko garaian, zenbaki bat eta zelula erritmikoa adierazi izan ditugu. Gaurtik aurrera, goialdeko zenbakiaren funtzioa berdina izanik, zelula bakoitzari dagokion zenbakia ipintzen hasiko gara. Lau denbora balio dituen *biribila* da konpasaren unitatea. Beraz, beheko zenbakia (1) bat baldin bada eta goikoa, adibidez, (3) zenbakia, horien esanahia ondorengo hau da: konpas bakoitzean hiru *biribil* edo horien iraupena izango duten zelulak sartu ahal izango direla konpas bakoitzean. Guri dagokigunez, gehien erabiltzen dugun zelula *beltza* da, eta hemendik aurrera beltzaren ikurra marraztu beharrean, “lau” zenbakia erabiliko dugu.

Azalpen guztiak eman ondoren, ikasleen lana oso erraza da: konpas bera bi erataria idatzita agertzen da; beraz, biak elkartu behar dituzte.

Beti esan izan da musika matematikarekin lotuta dagoela. Fitxa honetan argi ikusten da hori, eta ziur gaude adibide piloa bururatuko zaizkizuela ikasleekin egiteko.

## 2.4 Txirula jotzen ikasten: *Maiteak galde egin*

*Lan egiteko era: Talde handian/Bakarka*

*Materiala: Musikako lan-koaderno, 2.4 fitxa/CDa, abestiak, 8. pista*

Hau ere, aski ezaguna den kanta, txirulaz jotzeko prestatu dugu. Zerbait aipatzearren, orain arte aurkeztu ez dugun musika lengoaiako puntu berri bat azalduko dugu. Ikasleei beraiei utziko diegu errepika-ikurraren eta ondorengo konpasaren goialdean azaldu diren zenbaki horien zergatia arrazoitzen. Logika erabiltzeko eskatu eta baliteke norbaitek erantzun zuzena ematea. Hasieran arraroa eta konplexua iruditu arren, CDa entzunez edo irakaslea kantuan edo solfeotan entzunez partiturari jarraituz gero, berehala jabetuko dira zenbaki horien zereginaz eta, batez ere, euren erabileraren abantailaz, batik bat ekonomikoa, denboraren ekonomia, noski.

Gainerakoan, ezer berririk ez. Hiruko neurrian sorturiko doinua da. **Fa#** agertzen denez, arreta berezia eduki behar da txirula jotzerakoan.

Abestia lantzeko prozedura betikoa izango da, eta gogoratu entrenamendu saioak ongi etorriko zaizkiela ikasleei.

## 2.5 Diktaketa hiruko neurrian

*Lan egiteko era: Talde handian/Bakarka/Binaka*

*Materiala: Musikako lan-koaderno, 2.5 fitxa*

Hiruko neurriarekin jarraitzen dugu, baina, oraingoan, bi saiotan banatuko dugu diktaketa egiteko.

Lau konpas izango dituen melodia txiki bat prestatu behar duzue aldez aurretik.

Melodiaren ezaugarriak hauek izango dira:

Zelula erritmikoak: Nahi direnak aukeratu. *Punttudun zuria. Zuria. Beltza. Kortxeak.*

Notak: **Mi, Fa, Sol**. Melodia **Mirekin** hasi eta bukatu.

Lehen-lehenik eskema erritmikoa idatzi beharko du ikasleak. Horretarako, perkusiozko tresna bat eskuetan hartu eta behin eta berriro, patxada handiz, erritmoa markatuko duzue. Ohikoa den bezala, ikasle batzuek berehala idatziko dute entzundakoa paperean. Beste batzuei gehiago kostatuko zaie. Laguntze aldera, gorputzaren mugimenduaz konpas ezberdinak adieraziko ditugu. Nola? Bada, oso modu errazean: lehenengo konpaseko zelulak markatu ondoren eta erritmoa galdu gabe, pauso bat emango dugu ezkerraldera, bigarren konpasari dagozkion zelulak markatzeko. Horrela, konpas bakoitzeko notak leku ezberdinetan adieraziko ditugu. Azkenik, zalantzarik egon ez dadin, ahotsez jantziko dugu eskema ohiko “dan”, “dilin” edo “ta”, “titi” erabiliz.

Bigarren lana ez da diktaketa izango. Pultsazio bakoitzari silaba bat egokituz, zentzuzko esaldi bat osatzea eskatuko diogu ikasle bakoitzari. Errima erabiltzen badute, biribilagoa izango da emaitza.

Azkenik, melodia diktaketarekin hasiko dugu. Baina hori egin aurretik, tresna melodiko bat erabiliz aurkeztuko ditugu aipaturiko hiru notak (**Mi**, **Fa**, **Sol**). Ondoren, diktaketa hasi aurretik, zenbait froga egingo ditugu. Irakasleak eredu batzuk emango ditu, eta ikasleek kantatuz, afinatuz eta noten izenak esanez erantzun beharko dute. Hona hemen, adibide gisa, zenbait eredu erritmo erraz bat erabiliz.

MI MI MI / MI q q q h .	MI MI MI / FA . q q q h .
MI MI FA / MI . q q q h .	MI FA MI / FA . q q q h .
MI FA MI / MI . q q q h .	MI MI MI / SOL . q q q h .
MI MI SOL / MI . q q q h .	MI SOL SOL / SOL . q q q h .
MI MI FA / SOL . q q q h .	MI FA SOL / MI . q q q h .

Eskemaren bat gaizki erantzuten badute, berriro errepikatuko dugu. Ongi egiten badute, hurrengora pasako gara.

Froga horiek txirula joz ikasleen aurrean egiten badira, kontu izan, horiek txirulari begiratzeko joera izango dutela eta arreata hatzen mugimenduetan ipiniko dutela guri interesatzen zaigun entzumen heziketaren auzia alde batera utzita. Nahi izanez gero, formula mistoa erabil genezake: hasieran, beraien aurrean jo eta, geroago, begi-bistatik kendu.

Azkenik, diktaketarekin amaitzeko, melodia osoa behin eta berriro joko dugu, pentagraman idatz dezaten. Txirula erabili izan badugu, orain ere, denek lana egin dezaten, edo zalantzaren bat argitu asmoz, azkeneko saioa asko erraztuko dugu beraien aurrean joz.

## 2.6 Txirula jotzen ikasten: *Dios te salbe*

*Lan egiteko era: Talde handian/Bakarka*

*Materiala: Musikako lan-koadernoak, 2.6 fitxa/CDa, jarduerak, 9. pista*

Gabon giroko kanta bat da honako hau, nahiz eta hainbat lekutan doinu bera Santa Ageda edo San Joan abestietan ere erabili ohi den.

Kanta honetan, zenbait zailtasun aurkituko ditugu. Lehenengoa begi-bistan dago: bi nota berdin elkartzen dituen *loturarekin* egingo dugu topo. Abesti honetan, bi *beltz* elkartzen ditu gehienetan *loturak*, baina ezin *zuri* bat bihurtu, hainbat konpasetan baitaude. Beste pare bat alditan, *punttudun zuria* eta *beltza* elkartzen ditu, eta, ondorioz, ongi neurtu beharreko lau taupadako iraupena izango du notak. Ikusten duzue, berriro ere matematikarekin egin dugu topo.

Txirularen esparruan zailtasun batekin topatuko gara, goiko **Mi** birritan agertuko baitzaigu. Aldez aurretik, gogoratu egin beharko duzue zer mugimendu egin behar diren aipaturiko nota jotzeko. Beti errepikatzen dugu, baina entrenamenduek asko laguntzen dute. Prozedura: ohikoa.

## 2.7 Aukeratu erantzunak

*Lan egiteko era: Bakarka*

*Materiala: Musikako lan-koadernoak, 2.7 fitxa*

Zenbait kontzepturen errebaso txiki bat egin asmoz, test moduko froga hau prestatu dugu.

Honelako frogen aurrean jarrera bat baino gehiago har ditzake irakasleak:

- Laguntze aldera, testuan dauden galderari buruzko hala-holako hausnarketa egitea. Ez dira galdera berdinak egin behar, baina bai antzekoak eta zerikusia dutenak. Ondoren iritsiko da, testa osatuz, bakarkako lana egiteko garaia.
- Besterik gabe, azterketa gisa, froga burutzeko agindua eman.

Hona hemen erantzunak:

- |      |      |           |
|------|------|-----------|
| 1. B | 4. C | 7. A      |
| 2. B | 5. B | 8. Batuta |
| 3. C | 6. A |           |

## 2.8 Txirula jotzen ikasten: *Lo, lo, maite*

*Lan egiteko era: Talde handian/Talde txikian/Bakarka*

*Materiala: Musikako lan-koadernoak, 2.8 fitxa/CDa, jarduerak, 10. pista*

*Kanon* motako beste kanta bat dakarkigu. Hau ere bi taldek burutzeko prestatua dago.

Beti bezala, lehenengo betebeharra, denok batera, taldeetan banatu aurretik, partitura ezagutzea da. Arazorik gabe solfeatu, txirula hartzeko garaian zalantza gehiegi egon ez dadin.

Konturatuko zarete, bigarren taldeak lehenengoa hasi eta berehala hasi beharko duela lanean, hain zuzen ere, hura, bigarren konpasera iristean. Zailtasun une hori gainditu ondoren, ez dugu uste arazo berezirik dagoenik harmoniaz gozatzeko.

CDan bi motatako *kanona* aurkituko duzue: bata solfeatuz eta bestea txirula erabiliz osatutakoa. Esan beharrik ez dago, letra erabiliz, kantatuz egin daitekeela, eta, gainera, horixe da azken helburua.

Prozedura: 1.7 fitxako bera.

Amaitzeko, partituraren azpian jarri ditugun 3 galderak erantzun beharko ditu ikasle bakoitzak.

### **LAN-KOADERNOTIK APARTEKO KANTA: *BASORA SARTU NINTZENEAN***

*Lan egiteko era: Talde handian*

*Materiala: CDa, jarduerak, 11. pista*

Ziza hori eta perretxiko bila  
basora behin sartu nintzenean,  
kukuka jolastuz argia zebilen  
agur, agur eginez adar artean.

Oihu bat egin nuen baso-bidean  
mendiak erantzun zidanean,  
oihartzun bat zen mendiaren oihua,  
elkar harturik hasi ginen kantuan.

Lizarra, gorosti(a), haritza, garoa,  
kuku jauna bizi da pagoan,  
katagorriak intxaur bat du ahoan,  
gozo-gozo hartu dut nire altzoan.

Basoan bizi omen dira otsoak,  
halaxe dio nire amonak,  
ez dut mamurik ikusi gaur basoan,  
barnetik nabil eman ez egun onak.

Denoi gustatzen zaigu kantatzea, baina ez dugu denok kantatzen. Zenbat aldiz entzun diogu norbaiti “*belarri txarra daukat*”, edo “*ahots txarra daukat*” eta antzeko esaldiak? Batzuei lotsa ematen digu kantatzeak, eta adin honetako ikasle askori ere bai. Lotsa gaintzen laguntzea izan behar du irakaslearen zereginetako bat. Horretarako jartzen ditugu hau bezalako kantak. Badakigu denek ez dutela afinatuko, baina horregatik ez ditugu baztertuko; agian, suabeago kantatzea eskatuko diegu horiei, inola ere ez isiltzea. Animatu ikasleak kantatzera, eta gainera irribarretsu kanta dezatela, tinbrea askoz ere alaiagoa ateratzen baita.

## LAN-KOADERNOTIK APARTEKO KANTA: *OKKI-TOKKI-UNGA*

*Lan egiteko era: Binaka*

*Materiala: CDa, jarduerak, 12. pista*

### **A**

*Okki-tokki-unga,  
okki-tokki-unga,  
hey, missa day, missa doh,  
missa day.*

*Okki-tokki-unga,  
okki-tokki-unga,  
hey, missa day, missa doh.*

### **B**

Hitz goxo bat entzun dut,  
isilik esana:  
mutil polita naizela  
esan dit Oihanak.  
Esan dit Oihanak.

*Okki-tokki-unga...*

Irribar(re) argi batez  
ikusten zaitut nik,  
bihotzez maite nauzula  
banekien lehendik.  
Banekien lehendik.

*Okki-tokki-unga...*

Zure irudi xarmanta  
buruan jiraka,  
zerbait ikasi nahi eta  
adimena falta.  
Adimena falta.

*Okki-tokki-unga...*

Hitzak bezain argiak  
begiradak dira,  
baina hitzak nahi nituzke,  
ez egon begira.  
E egon begira.

*Okki-tokki-unga...*

Kantatzeak lotsa ematen badie adin honetako ikasleei, zer esanik ez dantza egiteak, mutilei batez ere. Ikasturtean zehar proposatuko dugu dantzaren bat edo beste, baina, poliki-poliki hasteko asmoz, oraingoan, erritmo-jolas txiki batzuk bakarrik proposatzen ditugu kantuari laguntzeko. Hasteko, elkarri begira eta binaka jar daitezela ikasleak.

Hona hemen gure proposamena:

Binaka elkartu eta erritmoa landuko dugu. Berez, erritmoak ez du inolako zailtasunik, izan ere bikoia da. Agian, zailxeagoa egingo zaizue prestatu dugun koreografia, batik bat aire bizia duelako. Baina helburuetako bat hanka, beso, esku eta abar koordinatzea da, eta bestea ahoskapenak egitea: o-i-u-a, ei, ia, ai... fonemafonia arloan hotsen grazia eta musikaltasuna bizitzea.

### **Mugimenduen kodea**

**A** Binaka elkarri begira

OKKI-TOKKI = batek bestearen sorbaldak erritmikoki ukituz, 4 kortxea  
UN = norberak bere eskuak txalotuz, beltz bat  
GA = aurrekoaren eskuak txalotuz, beltz bat  
OKKI-TOKKI = batek bestearen sorbaldak erritmikoki ukituz, 4 kortxea  
UN = norberak bere eskuak txalotuz, beltz bat  
GA = aurrekoaren eskuak txalotuz, beltz bat  
HEY MISSA = norberak bere izterrak kolpatuz, beltza eta bi kortxea  
DAY MISSA = norberak bere bi sorbaldak ukituz, beltza eta bi kortxea  
DOH MISSA DAY = norberak bere izterrak kolpatuz, beltza, bi kortxea, bi beltz  
OKKI-TOKKI = batek bestearen sorbaldak erritmikoki ukituz, 4 kortxea  
UN = norberak bere eskuak txalotuz, beltz bat  
GA = aurrekoaren eskuak txalotuz, beltz bat  
OKKI-TOKKI = batek bestearen sorbaldak erritmikoki ukituz, 4 kortxea  
UN = norberak bere eskuak txalotuz, beltz bat  
GA = aurrekoaren eskuak txalotuz, beltz bat  
HEY MISSA = norberak bere izterrak kolpatuz, beltza eta bi kortxea  
DAY MISSA = norberak bere bi sorbaldak ukituz, beltza eta bi kortxea  
DOH = buelta osoa 4 beltzen denboran

**B** Elkarri begira jarraituz, 8 beltzez osatutako erritmo-eskema egingo dugu, geure gorputz-atalak erabiliz.

- a. Hanka batez lurra kolpatu.
- b. Aurreko lagunaren eskuak kolpatu.
- c. Norberaren izterrak kolpatu.
- d. Aurreko lagunaren hatz lodiak kolpatu.
- e. Hanka batez lurra kolpatu.
- f. Aurreko lagunaren eskuak kolpatu.
- g. Norberaren izterrak kolpatu.
- h. Aurreko lagunaren hatz lodiak kolpatu.

Mantso-mantso zeuek probatzen baduzue, oso erraz erakutsiko diezue ikasleei. Ez da dirudien bezain konplexua.